



PERTSONA HELBURU
COMPROMISO CON LAS PERSONAS

2014ko aurkezpena eta memoria



Aurkibidea

1. Aurkezpena
2. Visesa
3. Interes-taldeak
4. 2014ko jarduera



1. Aurkezpena

1. Aurkezpena

Ángel Toña Guenaga, Visesako presidentea

Marcos Muro Nájera, Visesako zuzendari nagusia

Memoria honetan Visesak 2014ko ekitaldiaren gaineko azterketa egin du eta burututako kudeaketa zein lortutako emaitzen berri eman du. Denbora tarte horretan Visesa osatzen dugun pertsona guztion lanaren xedea hauxe izan da: euskal gizarteari zerbitzurik onena eskaintzea Birgaitze, Berritze eta Hiri Berroneratzearen arloan, baita babes publikoko etxebizitza iraunkorrak sustatzea ere, jabetzan zein alokairuan.

Visesatik, gugan izandako konfiantzari erantzun diogu, arin eta zerbitzu eraginkorra eskainiz. Iaz, Visesan lan egin genuen pertsona guztiok egunero lan egin genuen gure bezeroen beharrei erantzun egokiak emateko helburuarekin. Gure eginkizuna gizarte zein ekonomia testuinguru konplexuan garatu dugu eta egoerari aurre egin diogu jarduera maila altua mantenduz. Horrek guztiak 47 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eragin du. Toki komunitatean egin den inbertsio horri esker, Visesa eragile garrantzitsu bilakatu da eraikuntza eta etxegintzaren sektoreari lotutako jarduera ekonomikoa sustatu eta mantentzeari dagokionez.

Testuinguru zail horren baitan, 3.253 etxe proiektua idazteko fasean edo obrak gauzatzeko fasean daude, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako hainbat udalerritan.

Aurten lanean jarraituko dugu hiri-berroneratzearen arloan proiektu estrategikoak arrakastarekin burutze aldera, hala nola, Bilboko 421 Banaketa Eremua: Bolueta, Zorrotzaurre; Sestao: Vega Galindo; Donostia:

1. Aurkezpena

Txomin Enea; Tolosa, Eibar.... Jarduera horiek guztiek erabiltzen ez diren industria lurzoruak dituzten eremuak hobetzen lagunduko dute.

Eremu guztietako kudeaketa eraginkorrak, gure bezeroen asebetetze maila altuak eta berrikuntzaren aldeko apustuak (gure jardueraren alor guztiak barne hartuz) Visasari etorkizunari aurre egiteko aukera ematen diote, betiere, Eusko Jaurlaritzak agindutako zerbitzua eskaintzen jarraitzeko asmoarekin.

Aurkezpen honen bitartez, Visesak eskerrak eman nahi dizkie etxebizitza bat eskuratu duten pertsonari, euren konfiantzagatik; erakundeko langile guztiei, euren ahaleginagatik; gure aliatu eta laguntzaileei, garatutako lanagatik eta gure akziodunei, euren laguntzagatik. Haiei esker, Visesa erreferentzia bat da Euskadiko babes publikoko etxebizitzaren eta birgaitzearen arloan.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
PERTSONA HELBURU
COMPROMISO CON LAS PERSONAS

2. Visesa

2. Visesa

2.1. Akziodunak eta Administrazio Kontseilua

2012an zabaldu ondoren, Visesaren gaur egungo kapital soziala 36,9 milioi eurokoa da, eta honelaxe banatzen da titularitatea:



2. Visesa

2.1. Akziodunak eta Administrazio Kontseilua

2014. urtean, honako hauxe izan da Visesako **Administrazio Kontseiluaren** osaketa:

PRESIDENTEA **JUAN MARÍA ABURTO RIQUE jauna**

PRESIDENTEORDEA **M^a COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA andrea**

ZUZENDARI NAGUSIA **MARCOS MURO NÁJERA jauna**

BOKALAK

IÑAKI ARRIZABALAGA ORMAETXEA jauna

IGNACIO BASÁÑEZ ALFONSO jauna

MIREN SARATXAGA DE ISLA andrea

HERNANDO LACALLE EDESO jauna

FERNANDO IRIGOYEN ZUAZOLA jauna (KUTXABANK, S.A.)

PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA PINEDO jauna (KUTXABANK, S.A)

ALFREDO ZABALETA BARREDO jauna (LABORAL KUTXA)

IDAZKARIA

ALBERTO ARZAMENDI CECIAGA jauna

2. Visesa

2.2. Gure xedea eta ikuspegia

Xedea

Visesa Eusko Jaurlaritzaren menpeko eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera atxikitako sozietate publikoa da, eta **etxebizitzaren zein lurzoruaren arloko lurralde-politika garatzen du beste instituzio batzuen laguntzaz.**

Lurzorua kudeatu eta babes publiko jasangarriko etxebizitzak sustatzen ditu, jabetzan nahiz alokairuan, EAEn etxebizitza-premiak dituzten taldeentzat, betiere Eusko Jaurlaritzak zehaztutako eskakizunak betetzen badituzte.

Era berean, Visesak **hiria biziberritzeko eta berritzeko prozesua** bultzatu, sustatu eta bertan lagundu eta parte hartzen du bete-betean. Horrez gain, etxebizitzak eta azpiegitura publikoak ere zaharberritzen ditu, irisgarritasuna sendotzeko, **pertsonen bizi-kalitatea** hobetzeko eta, lurralde-orekaren ikuspegitik, **lurralde jasangarria sustatzeko.**

2. Visesa

2.2. Gure xedea eta ikuspegia

Ikuspegia

Visesak **erreferentea** izaten jarraitu nahi du EAEko **babes publikoko etxebizitzen zein zaharberrikuntzaren arloan**, baita Eusko Jaurlaritzarentzako **eragile erabakigarria** ere, haren planak betearazteko orduan. Horretarako:

- Helburu dituen taldeen premiei erantzuteko moduko produktu eta zerbitzuen zorroa garatzen du, eta ekonomiaren, gizartearen zein ingurumenaren ikuspegi hirukoitzetik da jasangarria.
- Gainerako eragile publiko esku-hartzaileekin koordinatu eta lan egiten du, lurralde-plangintza integratua ezartzeko eta baliabideak hobeto ustiatzeko.
- Bete-betean parte hartzen du lurraldearen dinamizazio ekonomiko eta sozialean.
- Gure jardueraren ondorioz sortutako erantzukizun soziala sustatzen du.
- Proiektu ekonomiko jasangarria da.
- Bertako langile-taldea konprometituta eta gogobeteta dago.

2. Visesa

2.3. Visesaren bilakaera

Visesaren mugarri nagusiak gure interes-taldeentzako zerbitzua hobetzeko bilakaera iraunkorrean:

1990	Visesa sozietate publikoa sortu zen (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. -Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.).
1992	Visesaren jarduera hasi zen.
1994	Geure lehenengo sustapena esleitu genuen: babes ofizialeko 373 etxebizitza Intxaurren (Donostia).
1996	Ziurtagiri energetikoa ezarri genuen geure sustapen guztietan.
2000	BBK, Kutxa, Vital eta Laboral Kutxa akziodun egin ziren, eta Orubide zein Alokabide sozietateak sortu ziren (%50 Visesaren partaidetzapean).
2000	ISO 9001 ziurtagiria lortu genuen kalitatea kudeatzeko sistemagatik.
2002	EAEko etxebizitza hutsak mobilizatzeko programa jarri zen abian (Bizigune programa).
2003	COAVNek eraikuntzako lan onenari emandako saria irabazi genuen: 168 etxebizitza sozial Lakuan (Vitoria-Gasteiz).
2005	Eusko Jaurlaritzak Zilarrezko Q aitortu zigun kudeaketa bikainagatik.

2. Visesa

2.3. Visesaren bilakaera

2005	ISO 14001 ziurtagiria lortu genuen ingurumena kudeatzeko sistemagatik.
2007	Hasitako 10.000 etxebizitza eta eskrituratutako 5.000 etxebizitza genituen EAEn.
2008	Zilarrezko Bikain Ziurtagiria lortu genuen euskararen agerpen, erabilera eta kudeaketagatik.
2008	IISBE erakundeak (Internacional Initiative for Sustainable Built Environment) Bermeon egindako babes ofizialeko 50 etxebizitzako sustapena hautatu zuen, "Eraikuntza Jasangarriaren Munduko Konferentzian - SB08" Espainiako ordezkaria izan zedin.
2009	COAVNeko Euskal Herriko Arkitekto Hirigileen Elkarteak Boluetan egin genuen proiektuari eman zion saria "Hiria, hirigintza eta ekologia" lehiaketaren XI. edizioan.
2010	Aedipe-Human-Giza Kapitala Saria lortu genuen pertsonetan oinarritutako berrikuntzan (administrazio publikoen kategorian). 10.000 etxebizitza genituen esleituta.
2010	I+G+b-ko 7. Esparru Programan, Europako Batzordeak PIME's proiektua hautatu zuen (Visesak Salburuan babestutako 432 etxebizitza egiteko proiektua, besteak beste) betearazpena batera finantzatzeko asmoz, bizitegi-garapen jasangarriaren adierazgarri zen-eta.
2010	I+G+b-ko 7. Esparru Programan, Europako Batzordeak OPEN HOUSE proiektua hautatu zuen, eraikinen jasangarritasunaren ebaluaziorako metodologia europarra garatzeko eta ezartzeko. Proiektua 2013an itxi zen.
2011	Amaitutako babes publikoko etxebizitzaren kopuruak urteko marka hautsi zuen -5.473 etxebizitza-, eta, eurretatik, Visesak herena egin zuen guztira.

2. Visesa

2.3. Visesaren bilakaera

- | | |
|------|--|
| 2011 | Visesak eta EHUko Arkitektura Sailak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, industrializazioari eta etxebizitza babestuei buruzko tailerra eta ikerketa-taldea garatzeko. |
| 2012 | Zerbitzugintza energetikoari eman genion hasiera, eta etxebizitzaren 400etik gora jaberekin sinatu genituen kontratuak. |
| 2012 | Gardentasun eta zerbitzu hoberekin mesedetan, kontratazio-espedituentz argitaratzen hasi ginen Euskadiko Kontratazio Publikoaren Atarian (kontratugilearen profila). |
| 2013 | Gaztela eta Leongo Juntak bizitegi kolektiboaren kategoriako eraikuntza jasangarriaren IV. saria eman zion Bermeoko babes ofizialeko 50 etxebizitza bioklimatikoko sustapenari. |
| 2013 | Prebentzioaren eta lanaren arloko ekimen publiko onenaren saria eman ziguten Arkitektura Teknikoaren eta Eraikuntzako Segurtasunaren XVI. Sari Europarretan. |
| 2013 | Merkaturatzeko modalitate berriak diseinatu eta abian jarri genituen: erosteko aukera eskaintzen duen alokairua eta ordainketa geroratua eskaintzen duen erosketa. |
| 2013 | Endesak 2013ko higiezinaren sustapen jasangarrienaren saria eman zigun Bermeoko babes ofizialeko 50 etxebizitza bioklimatikoko sustapenagatik. |
| 2013 | I+G+b-ko 7. Esparru Programan, Europako Batzordeak OSIRYS proiektua hautatu zuen, ekomaterialak garatzeko eta, horren bidez, etxebizitzaren barruko aldeko airearen kalitatea hobetzeko. |

2. Visesa

2.3. Visesaren bilakaera

- | | |
|------|--|
| 2014 | EuskoRegite plataforma jarri zen abian, etxebizitza Sailburuordetzari zerbitzua emateko. |
| 2014 | “Babestutako Etxebizitzako Jarduera Onenen” AVS Saria: Visesak sustatutako babes ofizialeko 242 etxebizitzako proiektua errendimendu handikotzat hartu da eraikuntza jasangarriaren faktore guztietan, eraikinaren kontsumoak zeroak direlako ia-ia (NZEB) eta kalifikazio energetikoa duelako. |
| 2014 | Obren lizitaziorako orriak aldatu ziren, kontratistek azpikontratistekin dituzten betebeharrak txertatzeko eta ordainketa-baldintzak hobetzeko. |
| 2014 | Mutualia Sariaren VI. Edizioko akzesita lortu genuen, Visesak laneko osasunaren zein segurtasunaren arloan garatutako prebentzio eta kudeaketagatik. |
| 2014 | Nazio Batuetako Jarduera Egokien Nazioarteko X. Lehiaketan parte hartu genuen (Dubai 2014). Honako jarduera hau aurkeztu genuen: “BILBO-BOLUETA: PERTSONENTZAKO HIRIGINTZA. Hiria biziberritzea eta ingurune naturala berreskuratzea”. BEST ziurtagiria lortu genuen, eta finalisten zerrendan ere sartu gintuzten (SHORT LIST). |

2. Visesa

2.4. Proiektu estrategikoak

4.2.1. Bolueta

Bilboko "Bolueta" 421. banaketa-gunerako proiektuak gizartearen onerako berreskuratu nahi ditu Metropolialdeko Bilboko ingurunean erabiltzen ez diren lurzoru industrialak. Helburu bakarra, ordea, ez da hirigintzari begira hondatutako dagoen eremua berrikustatzea, jarduera adierazgarria egitea baizik. Estrategiari begira, gaur egungo egoera hondagarria alderantzizatzeko aukera emango du proiektuak, eremua oso-osorik biziberrituko da-eta. Proposamenak lotune estu-estu dauka ibaiarekin, ingurune naturala funtsezko hiru esparrutan berreskuratu ahal izateko: arkitektura, mikrohiria eta sektorea. Proiektuan, gainera, administrazio publikoek sustatutako etxebizitza sozialak ere sortuko dira, 1.100, guztira, eta, eurretatik, 680 babes publikokoak izango dira araubide baten edo bestearen eraginpean. Proiektuak funtsezko faktore bereizgarriak ere nabarmenduko ditu: aurrezki energetikoa eta material natural zein osasungarrien bidez egindako eraikuntza.

Gunean bertan, zenbait lehiaketa publiko egin dira, hirigintzako kudeaketarako agiriak garatzeko, urbanizazioko proiektuak zein 1. faseko eraikuntzako proiektuak idazteko eta, fase horretan, honako hauxe eraikitzeko: araubide orokorreko 108 etxebizitza babestu, araubide bereziko 63 etxebizitza eta tasatutako 190 etxebizitza.

Lur-zatiketarako proiektua behin betiko onartu zen. Sustapeneko etxebizitzak 2013ko irailean esleitu ziren.

2014an, urbanizazioko proiektua onartu da behin betiko, eta Itun Batzordeak A faseko urbanizazio-obrak

2. Visesa

2.4. Proiektu estrategikoak

lizitatu eta Amenábar enpresari esleitu dizkio. Aurreikuspenen arabera, 2015eko lehen seihilekoaren amaierarako egongo da bukatuta.

Aldi berean, 2014ko azaroan honako haxe eraikitzeko obrak lizitatu dira: babes ofizialeko 108 etxebizitza, 63 etxebizitza sozial eta prezio tasatuko 190 etxebizitza. Aurreikuspenen arabera, 2015eko lehen seihilekoaren amaierarako esleituko dira.

	ETXEBIZITZAK GUZTIRA	TIPOLOGIA			
		BOE	ES	PTE	EA
VIKESA	680	162	63	383	72
NEINOR	420				420
GUZTIRA	1.100	162	63	383	492

	GUZTIRA	FASEA								
		RE-1A1	RE-1A2	RE-1B	RE-2	RE-3A	RE-3B	RE-4A	RE-4B	RE-4C
VIKESA	680	108 BOE	63 GE	190 PTE		54 BOE	90 PTE		72 EL	103 PTE
NEINOR	420				328 EL			92 EL		

BOE: babes ofizialeko etxebizitza

ES: etxebizitza soziala

PTE: prezio tasatuko etxebizitza

EA: etxebizitza askea

2. Visesa

2.4. Proiektu estrategikoak

4.2.2. Zorrotzaurre

Zorrotzaurreko gunea izen bereko penintsulan dago kokatuta, San Inazio eta Deustua auzoen aurrean, hain zuzen ere. Ekialdean, Deustuko kanala du mugakide; eta, mendebaldean, Nerbioi ibaia.

838.781,25 m²-ko azalera dauka, eta Bilboko hirigintza garatzeko azken aukera handia eskaintzen du. Hori dela eta, udalak jarduketa hori Zorrotzaurrekoarekin lotzeko aukera ezin hobe dauka, udalerrri osoan eremu berritzaile bereizgarri berria egon dadin eta Bilbok nazioartean berriro ere protagonismo handia eduki dezan. Zorrotzaurreko Plan Berezia Zaha Hadid arkitekto anglo-irakiar ospetsuak (2014ko Pritzker Saria) diseinatutako Master Planean dago oinarrituta, eta, bertan, auzokoen, elkarten, alderdi politikoen... ekarpenak ere hartu dira kontuan.

2004an lehenengo Master Plana egin zenetik, Zorrotzaurrerako proiektu jasangarria diseinatzea izan da helburu nagusietakoa, hau da, bertan garatu beharreko jarduketek ingurumena errespetatzea eta etorkizuneko belaunaldientzat behar den moduan uztea.

Orain arte Bilbo eraldatzeko erabilitako filosofia lehendik zegoen hiriaren berrerabiltzean egon da oinarrituta. Horren haritik, Zorrotzaurreko eremu hondatua zaharberrituko da, eta, horren ondoren, kalitateko hiri-eremu berria izango da. Horrez gain, Deustua zein San Inazio auzoak ere osatuko direnez, hiribilduko erdialdeko erriberako pasealekuei emango zaie jarraipena.

2. Visesa

2.4. Proiektu estrategikoak

Planaren elementu nagusia Zorrotzaurre uharte bihurtzea izango da. Kanala irekiko da, egindako zenbait azterketa hidraulikok egiaztatu egin dutelako kanala ireki beharra dagoela Bilboko uholdeen arriskua murrizteko. Kanalaren irekieraren ondorio onak Alde Zaharreraino iritsiko dira.

Zorrotzaurre diseinatzeko orduan, beharrezko erabilerak eta dentsitatea hartu dira kontuan, hiri-garapen trinkoa eta mugikortasun jasangarria lortzeko. Uhartean bertan, bi auzo buruaski egongo dira mutur banatan. Bietan, era guztietako jarduerak garatuko dira: etxebizitzak, saltegiak, bulegoak, ekipamendu publikoak, aisialdi-guneak...

Zorrotzaurre berriaren bi herenek (eremu mistoa) erabilera publikoa izango dute: 155.893 m²-ko eremu askea eta zuzkidura publikoetarako 84.936 m²-ko lur-zatiak. Bertan, hain zuzen ere, arlo guztietako ekipamenduak egingo dira: hezkuntza, osasuna, kirolak eta kultura.

Hasiera batean planean bertan aurreikusitakoaren arabera, 5.800 etxebizitza eraikiko dira. Euretatik, erdiak babestuak izango dira (babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatuak; eta, euretatik, Visesak 1.043 egingo ditu, gutxi gorabehera). Horrez gain, 201.360 m² eraikiko dira jarduera ekonomikorako. Dena dela, eremuaren garapenaren arabera behin betiko egingo diren etxebizitzaren kopuruaren arabera egokituko dira datu horiek.

Bestetik, mugikortasuna ere landuko da, eta oinezkoei, txirrindulariei zein garraio publikoari emango zaie lehenetasuna. Halaber, eremuaren beraren oroimenari ere eutsiko zaio: bizitegia, industria eta portua. Hori dela eta, bizitzeko (eraikitako era guztietako etxebizitzetan), lan egiteko (hiriko parke teknologiko berritzailean)

2. Visesa

2.4. Proiektu estrategikoak

eta gozatzeko (lekuaren ezaugarri fisikoak kontuan hartuta, aisialdi, kirol zein kultura arloan garatutako gune eta ekipamenduetan) lekua izango da auzo berria.

Proiektuak HAPBko behin betiko onarpena eta 1JI Jarduketa Integratuko HJPko behin betiko onarpena ditu. 1EU Egikaritze Unitateko Itun Hitzarmena behin betiko onartu zen 2013ko urrian, eta lur-birzatiketarako proiektua 2014ko abenduan onartu zen hasiera batean. Aurreikuspenen arabera, 2015eko otsailaren amaieran argitaratuko da BAO.

2014ko maiatzean, Deustuko Kanala irekitzeko eta Frank Gehry zubia eraikitzeko obrak hasi ziren.

VIKESA ETXEBIZITZAK 1EUN, BARRUTIEN ARABERA

	ETXEBIZITZAK GUZTIRA	TIPOLOGIA		
		BOE	PTE	EA
San Inazioko barrutia:	248	99	17	132
Deustua Bekoko barrutia:	467	87	111	269
Deustuko Erriberako barrutia:	45		45	
Deustuko Erriberako barrutia:	131		51	80

VIKESA ETXEBIZITZAK 2EUN + 2JIN

Distrito Ribera Deusto:	152	31	37	84
-------------------------	-----	----	----	----

Etxebizitzen kopuruari buruzko datuak eguneratuta daude, 2014ko abenduan lur-birzatiketarako onartutako proiektuko datuen arabera.

BOE: babes ofizialeko etxebizitza

PTE: prezio tasatuko etxebizitza

EA: etxebizitza askea

2. Visesa

2.4. Proiektu estrategikoak

2.4.3. Galindo ibarra

“Galindo ibarra” bizitegirako hiri-lurzoruko gunea Sestaoko Plan Nagusian hiri-lurzorutzat hartutako eremuan dago kokatuta, eta erdialdea du mugakide.

Gaur egun, udalerriko gunea honetako hondamen sozio-ekonomikoa oso nabaria da, eta oinarrizko hiri-zerbitzuak ere oso urriak dira. Eremuaren izena “Erdialdeko zabalgunea. Galindo ibarra” da, eta hirigintzako ezaugarriak 2003. urtean onartutako “Sestaoko HAPNren unean uneko aldaketa iparraldeko industrialdean” agirian zehaztu ziren.

Indarreko plangintzak bizitegi-eremu hondatuenak berregituratzea, birmoldatzea eta zaharberitzea dauka helburu: Simondrogaseko gunea eta Rivas kaleko eraikuntzak. Era berean, sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzorua ere sustatuko da. Guztira, 1.351 etxebizitza egingo dira bertan, Sestaoko biztanleen ahalmen ekonomikoaren araberako prezio eskuragarriko etxebizitzak sortzeko eta zaharberitu beharreko guneeetako egoiliarrentzako etxebizitzak eraikitzeko.

Bizitegi-eremu hori antolatzeko proposamenean, aitortu egiten da Sestaoko Kale Nagusia luzatu beharra dagoela multzo osoaren ardatz egituratzaile moduan. Horrela, bada, hiri-bidea sortuko da, eraikinak egongo dira albo bietan eta kokaleku berria udalerriko erdialdearekin geratuko da lotuta, ibilbide osoan multzoaren kontzeptua galdu gabe.

Galindo ibaiaren parean, oinezkoentzako pasealekua dago, erriberako bi gunek lotzen ditu eta atsedenlekua ere bada aldi berean. Eremua bi egikaritze-unitatetan dago banatuta: 1EU eta 2EU.

2. Visesa

2.4. Proiektu estrategikoak

Gaur egun, Hirigintza Jarduketarako Programa eta 1EU daude behin betiko onartuta, eta, azken horretan, 328 etxebizitza eraikiko dira guztira, aurreikuspenen arabera. Urbanizazioko proiektua eta lur-birzatiaketarako proiektua behin betiko onartuta daude, eta kutsadura garbitzeko lanak ere amaitu dira. 2014an, 1EU urbanizatzeko obren lehenengo fasea ere amaitu da, eta honako hauxe eraikitzeko obrak esleitu dira: 58 ES, 52 BOE eta alokairupeko 53 BOE. Aurreikuspenen arabera, 2015eko urtarrilean hasiko dira etxebizitzok eraikitzeko lanak.

	ETX. GUZ	TIPOLOGIA			
		BOE	GE	PTE	EL
1. FASEKO 1EU	163	52 (VPOA) +53	58		
2. FASEKO 1EU	165	105		60	
2EU	1.023	195	78	345	405
GUZTIRA	1.351	405	136	405	405

BOE: babes ofizialeko etxebizitza

GE: gizarte etxebizitza

PTE: prezio tasatuko etxebizitza

EL: etxebizitza librea

2. Visesa

2.5. Lurzoruen zorroa

Hona hemen urbanizatu gabeko edo azterketapeko lurzoru gordinak eta eraikiko diren etxebizitzak kopurua, gutxi gorabehera.

ALAVA SUSTAPENA	ETXEBIZITZAK		TIPOLOGIA				
	UDALERRIA	GUZTIRA	BOE	BOEa	ES	PTE	EA
Amurrio	Amurrio	56	56				
Amurrio	Amurrio	28	28				
Amurrio	Amurrio	42	42				
Gasteiz-Salburua	Vitoria-Gasteiz	128	128				
Gasteiz-Salburua	Vitoria-Gasteiz	128	128				
	GUZTIRA	382	382				
BIZKAIA							
Bolueta 3. FASEA	Bilbo	144	54			90	
Bolueta 4. FASEA	Bilbo	175				103	72
Galindo ibarra 1EU 2. FASEA	Sestao	165	105			60	
Galindo ibarra 2EU	Sestao	1.023	195		78	345	405
Abadiño	Abadiño	54	54				
Zorrotzaurre-San Inazio 1EU	Bilbo	231	99				132
Zorrotzaurre-Erribera 1EU	Bilbo	175				104	71
Zorrotzaurre-Deustua Bekoa 1EU	Bilbo	464	84			111	269
Zorrotzaurre 2EU, 2JI	Bilbo	156	32			38	86
Portugaletxe	Portugaletxe	67	67				
Sestao-Kueto	Sestao	48	48				
Sestao-Kueto	Sestao	32				32	
Urtuella	Urtuella	84			84		
Basauri	Basauri	65	65				
	GUZTIRA	2.883	803	0	162	883	1.035

2. Visesa

2.5. Lurzoruen zorroa

GIPUZKOA SUSTAPENA	UDALERRIA	ETXEBIZITZAK GUZTIRA	TIPOLOGIA				
			BOE	BOEa	ES	PTE	EA
Arrasate 216	Arrasate	216		216			
Azkoitia	Azkoitia	110	110				
Zarautz	Zarautz	150			150		
Pasaia Luzuriaga	Pasaia	73			73		
Antondegi-Donostia	Donostia	789	789				
Antondegi-Donostia	Donostia	321				321	
Eibar Egazelai	Eibar	42					42
Eibar Bolingua	Eibar	59	59				
Eibar Bolingua	Eibar	78	78				
Tolosa-Amaroz	Tolosa	150					150
Oiartzun-Arragua	Oiartzun	164	164				
Oiartzun-Arragua	Oiartzun	48			48		
Bergara	Bergara	104	104				
Bergara	Bergara	20				20	
Errenteria	Errentaria	60	60				
Azkoitia	Azkoitia	31	17		14		
Txomin Enea	Donostia	116	116				
Txomin-Enea-Donostia	Donostia	146	146				
	GUZTIRA	2.677	1.643	216	285	341	192

2. Visesa

2.5. Lurzoruen zorroa

EAE GUZTIRA		TIPOLOGIA				
LLHH	Etxebitzak guztira	BOE	BOEa	ES	PTE	EA
ALAVA	382	382				
BIZKAIA	2.883	803	0	162	883	1.035
GIPUZKOA	2.677	1.643	216	285	341	192
EAE GUZTIRA	5.942	2.828	216	447	1.224	1.227

BOE: babes ofizialeko etxebizitza

BOEa: babes ofizialeko etxebizitza alokairupean

ES: etxebizitza soziala

PTE: prezio tasatuko etxebizitza

EA: etxebizitza askea

LANDA-LURZORUA	UDALERRIA	HEKTAREAK
LURZORUA		
Zestoa-Iraetako ibarra	Zestoa	26 Ha landa-lurzoru
Ondarroa-Aieri	Ondarroa	1,6 Ha landa-lurzoru, indibisoan, Larrain higiezin agentziarekin

2. Visesa

2.6. Sustapenaren zorroa

2015-2016. Aurreikusitako entregak (eraikitzen) 780 etxebizitza

2015ean aurreikusitako entregak 450 etxebizitza

■ Leioa-Leioandi	100 BOE
■ Hernani	74 BOE + 34 ES
■ Barakaldo	92 BOE
■ Basauri Sarratu	60 BOE + 90 ES

2016an aurreikusitako entregak 330 etxebizitza

■ Leioa-Leioandi	108 BOE
■ Leioa-Leioandi	96 BOE
■ Eibar	62 BOE
■ Irun-Oiñaurre	48 BOE + 16 BOEa

2014. Esleitutako obradun lizitazioak + indarreko lizitazioak 926 etxebizitza

Esleitutako obradun eta sinatutako kontratudun lizitazioak 493 etxebizitza

■ Leioa-Leioandi	108 BOE
■ Leioa-Leioandi	96 BOE
■ Eibar	62 BOE
■ Irun-Oiñaurre	48 BOE + 16 BOEa
■ Sestao Galindo ibarra	52 BOE + 53 BOEa + 58 ES

2. Visesa

2.6. Sustapenaren zorroa

Obra esleitzeko indarreko lizitazioak 433 etxebizitza

■ Bolueta	108 BOE
■ Bolueta	63 ES
■ Bolueta	190 PTE
■ Barakaldo	72 BOE

2015. Aurreikusitako obra-lizitazioak 580 etxebizitza

■ Bilbo-Basurto	80 BOE + 14 EA
■ Arangoiti	53 BOE
■ Basauri-Sarratu	65 BOE
■ Irun-Oiñaurre	32 BOEa + 32 ES
■ Tolosa	36 BOE
■ Hondarribia	32 BOE + 33 BOEa
■ Santurtzi	32 BOE
■ Donostia-Morlans	70 BOEa
■ Leioa	101 ES

2. Visesa

2.6. Sustapenaren zorroa

2014. Proiektuaren idazketa	858 etxebizitza
■ Barakaldo:	85 BOE
■ Getxo Venancios:	54 BOE
■ Getxo Sarrikobaso:	53 BOE
■ Leioa Txorierri:	40 BOE
■ Leioa Txorierri:	40 PTE
■ Tolosa:	106 BOE
■ Tolosa:	36 PTE
■ Zumaia:	95 BOE
■ Zumaia:	42 ES
■ Arangoiti:	53 BOE
■ Santurtzi:	96 BOE
■ Basurto-krug	80 BOE
■ Basurto-krug	14 EA
■ Irun-Oiñaurre	32 BOEa
■ Irun-Oiñaurre	32 ES

BOE: babes ofizialeko etxebizitza

BOEa: babes ofizialeko etxebizitza alokairupean

ES: etxebizitza soziala

PTE: prezio tasatuko etxebizitza

EA: etxebizitza askea

2. Visesa

2.7. Etxebizitzak Zaharberritzeko Renove Plana

Gaur egun, adostasun sozial handia dago hirigintza-kulturaren aldaketa sustatu eta lehendik dauden eraikinen eta eremu sendotuen zaharberrikuntzaren, berriztapenaren eta biziberrikuntzaren alde egin beharra dagoela adierazten denean, oinplano berriko eraikuntzen hazkuntza eta hiri-hedapena alde batera utzita.

Visesak esperientzia eta egikera handiak dituenez, funtsezko eragilea izan behar da hiria zaharberritzeko, berritzeko eta biziberritzeko estrategia berri hori sustatzeko eta gauzatzeko orduan. Izan ere, benetako proiektuak jarri behar ditu abian, bide berri horretan aurrera egin ahal izateko. Alde horretatik, 2013-2016ko Etxebizitzak Zaharberritzeko Renove Planeko laguntzailea izan beharko da.

Plan hau 2020ko Europa Estrategiaren barruan dago kokatuta, eta honako konpromiso hauek betetzen dituen karbono gutxiko ekonomia bultzatzen du: CO2 igorpenen %20ko murrizketa, energiaren kontsumoaren %20ko murrizketa eta energia berriztagarrien erabileraren %20ko gehikuntza.

Hona hemen bere helburu nagusiak: etxebizitzak zein eraikinen eraginkortasun energetikoa handitzea, irisgarritasunaren baldintzak hobetzea, kohesio soziala indartzea eta enpleguaren sorrera suspertzea.

Lehendik dagoen parkeak badu gabeziarik, irisgarritasuna, alegia. Eraikinen %34 baino ez dira irisgarriak, eta %24k bakarrik dute igogailua, 2011ko Erroldako datuen arabera. Hori dela eta, hiria zaharberritzeko politika berria ezarri beharra dago, etxebizitzak, eraikinak eta ingurunea irisgarri egiten laguntzeko. Izan ere, argi eta garbi dago hobekuntza horiek adinekoen eta mugikortasun-arazoak dituztenen eguneroko bizimoduaren onerako direla.

2. Visesa

2.7. Etxebizitzak Zaharberritzeko Renove Plana

Era berean, gogoan eduki beharra dago gizarte-arloari begira zaugarriak diren hiri-gune hondatuetako jarduketak kohesio soziala suspertzen duela eta, horren ondorioz, gune horiek lotzen dituela herri edo hiri guztiekin.

Hori dela eta, zaharberrikuntzarako politika berriak ikuspegi integratua hartu beharko du kontuan, eta, eraginkortasun energetikoa zein irisgarritasun unibertsala hobetu ez ezik, laguntasun soziala bultzatu ere egin beharko du.

Azkenik, zaharberrikuntzak hurbileko enplegu-eskaria areagotzen duenez, garrantzi handia dauka tokiko mikroenpresa nahi enpresetan, eta bere maila oso handia da ekonomia emankorra suspertzeko eragin biderkatzailean. Hartara, Etxebizitzak Zaharberritzeko Renove Plana 2013-2016ko Enplegua Suspertzeko Programan zehaztutako sei lerro estrategikoetakoa da.

2. Visesa

2.8. EuskoRegite

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Eraikinen Azterketa Teknikoa arautzen duen dekretua aldatzeko maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretua onartu ostean, 2014ko ekainaren 2an **EuskoRegite** plataforma jarri zen abian.

EuskoRegite EAEko Eraikinen Azterketa Teknikoaren Erregistrorako plataforma da Interneten. Gobernuak ezarritako plataformak eraikinen jabeei lagundu nahi die EAT egiteko betebeharra betetzen; eta udalei, Eraikinen Azterketa Teknikoa (EAT) kudeatzen eta kontrolatzen. Plataforman sartzeko, www.euskoregite.com webgunera jo besterik ez dago.

2014an, telefono bidezko 701 kontsulta eta 481 posta elektronikoko atenditu dira, eta partikularrek, udalek, arkitektoek, aparejadoreek... egin dituzte kontsulta horiek.

EuskoRegiteren webaren ingurunean, udalentsako RECITE eremu pribatua dago, eta, bertan, EAEko udalek eraikinen azterketa teknikoak bildu, aztertu eta inskribatu egingo dituzte. Era berean, RECITEen bertan erregistratuko dira herritarrek (teknikariak izan nahiz izan ez) eta EAEko udaletako EATetako langileek egindako kontsulta guztiak.

2014ko ekainean plataforma abian jarri zenetik, herritarrek eraikinaren 161 informazio-ohar eskatu dituzte guztira, eta udalek 211 EAT erregistratu dituzte guztira.

EuskoRegite plataformako atentzioa ez ezik, Eusko Jaurlaritzari elkargo profesional eta udalentsako zenbait aurkezpen eta prestakuntza-ekintzatan lagundu diogu, Eraikinen Azterketa Teknikoari buruz ezarri beharreko arautegia eta Eraikinen Azterketa Teknikoaren informazio eta kudeaketarako EuskoRegite atari informatikoa zabaltzeko.

2. Visesa

2.8. EuskoRegite

2015. urterako aurreikuspenen arabera, beste talde batzuentzako eta herritarrentzako komunikazio eta prestakuntza arloko ekintzak egingo dira, zaharberrikuntzarako laguntzen arloan lehendik dauden mekanismoak eta eraikinen jabeen artapen-betebeharrak jakitera emateko eta herritarrei EATren beraren betebeharrean eta, egon baleude, irizpenen ondorioz sortutako obretan laguntzeko.

2. Visesa

2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

Visesak egunez egun lan egiten du, etxebizitzaren eraikuntzako erreferentzia izateko eta zeregin hori ingurumena eta, batez ere, herritarrek edozein ikuspuntutatik zaintzen dituen ikuspegi berritzaile bezain jasangarritik betetzeko.

Gizartearen zerbitzura dagoen enpresa publikoa denez, eraikuntzaren sektoreko berrikuntza eta kalitatea sustatzea da bere eginkizunetakoa. Horretarako, zenbait jarduera garatzen ditu, kudeaketaren arloan nahiz produktuaren berrikuntzan sustatzeko.

Visesako Berrikuntza Politikak **sektoreko kalitatea, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea** dauka helburu, EAEko eraikuntzaren sektoreko lidergo-posizioaren bila. Nabarmendu egin beharra dago Visesak Europar Batasuneko I+G+b-ko esparru-programetako zenbait lankidetzaproiektutan parte hartzen duela.

Garatutako proiektuek zeresan handia izan dute herritarren bizimodua sustatzen eta hobetzen duten etxebizitzaren sorreran, eta funtsezko hiru ardatzetan oinarritutako hiri-etxebizitzak kudeatzeko eta eraikitzeko teknika berrien erabilera bultzatu du: industrializazioa, eraginkortasun energetikoa eta jasangarritasuna.

Hurrengo urteei begira, Visesak zenbait arlotako proiektuetan lan egiten jarraituko du, aipatutako helburuak betetzeko.

2. Visesa

2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

Hona hemen Visesak berrikuntzaren arloan landutako proiektuak:

INDUSTRIALIZAZIOA

- **65 BOE Hondarribian.** Visesa sustapen honetako proiektua ari da garatzen, eta egurrean oinarritutako sistema industrializatueta eta eraginkortasun energetiko handian (ia-ia energiari kontsumitzen ez duen eraikina) dago oinarrituta.

I+G+b-ko 7. ESPARRU PROGRAMAK FINANTZATUTAKO PROIEKTU EUROPARRAK

- **PIME's:** Energiaren sektorean bertan, egikera onaren eredua izan nahi du jasangarritasun energetiko eta sozialaren arloan, erkidegoak garatzeko orduan (info +: www.pimes.es).
- **Osirys:** Materialen arlo tematikoarekin dauka zerikusia (NMP), eta ekomaterialak garatzea dauka xede, barruko aldeko airearen kalitatea eta itxituren "arnasgarritasuna" hobetzeko (info +: <http://osirysproject.eu>).

HIRI-GARAPEN JASANGARRIAK

- **Getxo Sarrikobaso.** Visesa53 etxebizitzako sustapen hau bultzatuko du, "ia-ia energiari kontsumitzen ez duen eraikina" egin ahal izateko, 2020rako derrigorrezkoa izango dela xedatzen duten zuzentarau europarrak kontuan hartuta.
- **65 BOE Hondarribian.** Visesa sustapen honetako proiektua ari da garatzen, eta egurrean oinarritutako sistema industrializatueta eta eraginkortasun energetiko handian (ia-ia energiari kontsumitzen ez duen eraikina) dago oinarrituta.

2. Visesa

2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

- **361 etxebizitza babestu Boluetan (Bilbo).** Sustapena diseinatzeko orduan, eraginkortasun energetikorako Passivhaus estandarra bete da.

Visesaren esperientziaren adierazgarri, hona hemen garatutako zenbait ekimen eta proiektu nabari:

INDUSTRIALIZAZIOA

- **2004. Etxebizitza-erakinetako egitura-sistema aurrefabrikatuak ikertzea** eta Zabalganako 156 etxebizitzako sustapenean ezartzea. Pich-Aguilera Arkitektura Taldeari esleitutako beka. 2009an amaitutako obra.
- **2010. Altzairuan oinarritutako industrializazioari buruz aztertzea.** Arcelor-LKS Ingenieria-Tecnaliaren laguntzaz garatutako azterketa estrategikoa. Horri esker, Euskadin garatu beharreko etxebizitza babestuen sustapenean altzairuzko eraikuntza industrializatua ezartzea bideragarria zen ebaluatu ahal izan zen.
- **2011-2012. EHUrekin hitzarmena sinatzea, etxebizitzako industrializatua aztertzeke, zabaltzeke eta ikertzeke,** Visesako sustapenetan ezartzeko proposamenak kontuan hartuta. IDFABRIK: hitzarmenaren esparruan garatutako argitalpenean, babestutako etxebizitzaren industrializazioaren gaur egungo egoera aztertzen da, baita garatutako ikerlaneko emaitzak ere.
- **2013. Industrializazioan eta eraginkortasun energetikoan** oso-osorik **aurrera egitea**, eraikinaren bizi-ziklo osoaren azterketa kontuan hartuta eta azterketa teorikoa etxebizitzaren sustapenetan ezarrita. Hormigoian garatutako esperientzien ostean, beste material batzuetan oinarritutako industrializazioa aztertu da; esate baterako, egurra eta altzairua.

2. Visesa

2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA ETA ERAIKINEN JASANGARRITASUNA

- **1998. urtetik aurrera.** Arautegiari 10 urtean aurrea hartuta, **Visesak %30eko gutxieneko aurrezki energetikoa ziurtatu zuen bere eraikin guztietan, kalitate-berme moduan.** Beraz, kalifikazio energetikoak C mailakoak edo hortik gorakoak ziren.
- **2002. urtetik aurrera. Eguzki-energia termikoaren instalazioak. Arautegiari aurrea hartuta, Visesak eguzki-hargune termikorako hodi biltzaileak ezarri zituen bere sustapen guztietan,** kontsumorako ura aurretiaz berotzeko eta, gutxienez, ur bero sanitariorako beharrezko urteko batez besteko energia guztiaren %60 hornitzeko (arautegiaren arabera, %30ekoa da).
- **2004-2006. Eraikuntza Jasangariaren Gida.** Eusko Jaurlaritzak eta Visesa zein Ihobe sozietate publikoek EEEn eta Orubideren laguntzaz egin zuten gida hau, EAEko etxebizitzan eraikuntza jasangarrirako oinarri teknikoak zehazteko.
- **2005-2008. Zaingune proiektu teknologikoa.** Gaitek (Eusko Jaurlaritza) eta Profit (Industria Ministerioa) programek emandako finantziarioari esker, ingurumen-adimeneko software-produktua garatu zen, etxeko elementu domotikoak, sensorialak eta jarduketakoak kontrolatzeko eta, horren bidez, elbarri fisikoei edo adinekoei laguntzen dieten asistentzia-zerbitzuak eskaintzeko. Salburuako 156 etxebizitza sozialeko sustapeneko etxebizitza egokitan ezarri zen.

2. Visesa

2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

- **2005-2009. EHUrekin garatutako lankidetza, galdaretako CO₂ igorpenen murrizketa ikertzeko.**
 - EFICAIND (2005). Gas bidezko banakako horma-galdaretako CO₂ igorpenen murrizketari buruzko ikerketa.
 - EFICACENT (2006-2009). Bizitegi-erabilerako galdara zentralizatueta CO₂ eta NOX igorpenen murrizketari eta errendimenduaren hobekuntzari buruzko ikerketa.
- **2010-2011. Baterako mikrosorkuntzan oinarritutako eraginkortasun handiko sistemak ezarri ziren** Salburuako 242 etxebizitzako eta Laudioko 103 etxebizitzako sustapenetan.
- **2013. EHUrekin garatutako lankidetza** (Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoa), etxebizitzaren eraginkortasun energetikoak aurrera egiteko, obra berriko zein zaharberrikuntzako **aire-infiltrazioak aztertu** ondoren.

I+G+b-ko 7. ESPARRU PROGRAMAK FINANTZATUTAKO PROIEKTU EUROPARRAK

- **Open House.** Ingurumenaren atalean zegoen kokatuta, eta Europa mailan eraikuntzako jasangarritasunaren etiketetan metodologia garden bezain bateratua garatzea zeukan helburu (info +: www.openhouse-fp7.eu).

2. Visesa

2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

HIRI-GARAPEN JASANGARRIAK

- **2005-2010. Tetraener-Antondegia** (I+G-ko 6. Programa). EEEK zuzendu zuen, eta energiaren ikuspegitik oso eraginkorrak ziren bizitegi-garapenak egin ziren Donostia-Antondegian eta Genevan. Hirigintza-prozesuko atzerapenen ondorioz, Antondegiko egiaztapen-lanak ezin izan ziren proiektuaren epean betearazi.

BESTE EKIMEN BATZUK

- **2001-2002. XXI. Arkitektura Lehiaketa.** Visesak antolatu zuen, etxebizitza sozialaren, arkitekturaren eta ingurumenaren arloko ikerketa sustapenetako errealitate fisiko, ekonomiko eta eraikuntzakoarekin lotzeko. 1. edizioaren helburua Bermeoko 50 BOEko sustapenerako eraikuntza-proiektua eta obren zuzendaritza kontratatzea izan zen. 2. edizioan, ordea, Elgoibarko 100 BOEko sustapenerako eraikuntza-proiektua eta obren zuzendaritza kontratatzea izan zen xedea.

Hona hemen Visesak berrikuntzaren eta kudeaketa jasangarriaren arloan hartutako konpromisoaren ondorioz sortutako lorpenak eta alboko aitorenak:

KUDEAKETAKO AURRERAKUNTZAK

- **2000.** Kontratistentzako eta obra-zuzendaritzarako prezio-oinarri homoginoa prestatzea.
- **2002.** EAEko etxebizitza hutsa mugitzeko programa abian jartzea (Bizigune programa).
- **2002.** Kudeaketa estrategikorako sistematikak ezartzea, urte anitzeko plan estrategikoak eta urteko kudeaketa-planak prestatzeko, hedatzeko eta euren jarraipena egiteko.
- **2003.** Visesako Produktu Batzordea abian jartzea, Produktu Politika zehazteko eta berrikusteko eta diseinurako zein eraikuntzarako irizpideak zehazteko eta eguneratzeko (gaur egun, 7. berrikuspina egin da).

2. Visesa

2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

- **2002-2005.** Kudeaketa Bikainerako EFQM Eredurako Kudeaketa Sistema diseinatzea eta ezartzea. Prozesukako kudeaketa.
- **2003-2005.** Laneko Arriskuen Prebentzioa eta Ingurumena Kudeatzeko sistema ezartzea, OHSAS 18001 eta ISO 14001 arauen arabera. Kudeaketa-sistemaren politika integratzea.
- **2004-2005.** Pertsonak Kudeatzeko Sistema Integrala ezartzea (Treibetasunen arabeko Kudeaketa Sistema).
- **2004-2005.** Bulegoetan, 5S-en Hobekuntza Metodologia ezartzea (antolamendua, ordena eta garbiketa).
- **2004.** Hasiara batean urtekoak eta gaur egun bi urtekoak diren autoebaluazioak ezartzea eta hedatzea.
- **2005.** Politika teknologikoa zehaztea. Berrikuntza-politika zehaztea.
- **2005.** Organigrama funtzionala alde batera uztea eta prozesukakoa ezartzea.
- **2005.** Proiektukako Kudeaketa Sistema ezartzea, sustapenen plangintzarako eta kudeaketarako. 2014an, Proiektukako Kudeaketa Sistema berrikusi da oso-osorik.
- **2005.** Berrikuntza kudeatzeko hobekuntza-taldea abian jartzea.
- **2005.** Sindikatuekin hitzarmena sinatzea, Eusko Jaurlaritzak eta Visesak sustatutako obren betearazpenaren esparru osoan Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea bete egiten dela ziurtatzea eta jarraipena egitea.
- **2005-2010.** Urte anitzeko hiru Eraikal proiektu sustatzaile zuzentzea, 20 arkitektura-estudiotan ISO 9001 araua, kalitatea, prebentzioa zein ingurumena kudeatzeko sistema integratuak eta ekodiseinuaren araua ezartzeko.
- **2006.** Prozesuen mapa integratua egitea.
- **2007-2011.** Prozesukako Kudeaketa Sistematika berria ezartzea etengabeko hobekuntzari begira. Hobekuntzarako prozesuei buruzko goi-bilerak.

2. Visesa

2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

- **2008.** Sozietateetako adierazleen egitura diseinatzea.
- **2008.** Administrazio Kontseiluarentzako hiruhileko txostena zehaztea eta ezartzea.
- **2008.** Datuen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoko Kudeaketa Eredua ezartzea. Bertan, hain zuzen ere, zenbait neurri, arau... zehazten dira, herritarren funtsezko eskubideak babesteko eta bermatzeko.
- **2009.** Urte anitzeko planak zehazteko Euskara Batzordea abian jartzea. 2014an, euskarako hizkuntza-irizpideak zehaztu dira.
- **2010.** Kapitalen Zuriketa Prebenitzeko Eredua ezartzea, Kapitalen Zuriketaren Prebentzioari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legean xedatutakoa betetzeko eta terrorismoaren edo delituzko beste jarduera batzuen finantziazioan erabiltzea eragozteko.
- **2011.** Gobernu Arduratsuaren Ereduaren diagnostikoa egitea eta ezartzea, honako honexetan xedatutako eskakizunak betetzeko: “Euskadiko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioetako gobernu arduratsuaren gida”
- **2011.** Arriskuen Kudeaketarako eta Barne Kontrolerako Eredua ezartzea, antzemandako arrisku nagusiak lantzeko eta kontrolatzeko.
- **2013.** Obrak lizitzatzeko orrietan hobekuntzak ezartzea (esate baterako, eskaintza telematikoen aurkezpena onartzea, azpikontratisten ordainketa fiskalizatzea, bermeen araubidea eta itzulketa malgutzea...).
- **2014.** Obra lizitzatzeko orriak aldatzea, kontratistek azpikontratistekin eduki beharreko kontratu-betebeharrak ezartzeko eta ordainketa-baldintzak hobetzeko.
- **2014.** Lehenengo Berdintasun Plana egitea.
- **2014.** Visesaren Jasangarritasunari buruzko lehenengo Txostena argitaratzea, GRI metodologian oinarrituta.
- **2014.** Prozesuen Mapa berrikustea eragiketei eta, batez ere, saldu osteko prozesuari begira.

2. Visesa

2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

ZIURTAGIRIAK, AITORPENAK ETA SARIAK

- **2000** ISO 9001 ziurtagiriaren lorpena kalitatea kudeatzeko sistemagatik.
- **2003**. COAVNek eraikuntza-obra onenari emandako saria: 168 etxebizitza sozial Lakuan (Vitoria-Gasteiz).
- **2005**. Zilarrezko Q aitortpena.
- **2005**. ISO 14001 ziurtagiriaren lorpena ingurumena kudeatzeko sistemagatik.
- **2008**. Zilarrezko Bikain Ziurtagiriaren lorpena euskararen agerpen, erabilera eta kudeaketagatik.
- **2008**. sb08 Melbourne - Sustainable Building Saria Bermeoko 50 BOEko sustapenarentzat.
- **2009**. COAVNeko Euskal Herriko Arkitekto Hirigileen Elkarteak “Hiria, hirigintza eta ekologia” lehiaketaren XI. edizioan Boluetan egin genuen proiektuari eman zion saria.
- **2010**. AEDIPE + Human-Giza Kapitalak pertsonetan oinarritutako berrikuntzan emandako saria, administrazio publikoen kategorian.
- **2013**. Gaztela eta Leongo Juntak Bermeoko babes ofizialeko 50 etxebizitza bioklimatikoko sustapenari emandako IV. saria, bizitegi kolektiboaren kategoriako eraikuntza jasangarria izateagatik.
- **2013**. Espainiako Arkitektura Teknikoko Kontseilu Orokorrak eraikuntzako segurtasunaren eta osasunaren arloko lidergoari eta berrikuntzari emandako saria, ekimen publiko onenaren kategorian.
- **2013**. Endesak Bermeoko 50 BOEko sustapenari emandako saria higiezinetakoko sustapen jasangarriena izateagatik.
- **2014**. PIME’s A-32 proiektuaren hautaketa jarduera egokiaren eredu moduan, 2014ko Solar Decathlon Europeko CECODHAS erakusketarako (Versailles).
- **2014**. “Babestutako Etxebizitzako Jarduera Onenen” AVS Saria: Visesak sustatutako babes ofizialeko 242 etxebizitzako proiektua errendimendu handikotzat hartu da eraikuntza jasangarriaren faktore guztietan, eraikinaren kontsumoak zero koak direlako ia-ia (NZEB) eta kalifikazio energetikoa duelako.

2. Visesa

2.9. Berrikuntza eta jasangarritasuna

- **2014.** Mutualia Sariaren VI. Edizioko akzesitaren lorpena, Visesak laneko osasunaren zein segurtasunaren arloan garatutako prebentzio eta kudeaketagatik.
- **2014.** “Euskaliteko Club 400ren XI. Topaketako” finalista, nazioarteko PIME’s lankidetzaproiektuaren bidez (I+G+b-ko 7. EP) nazioarteko ezarpenean garatutako jarduera onagatik.
- **2014.** Nazio Batuetako Jarduera Egokien Nazioarteko X. Lehiaketa (Dubai 2014). Honako jarduera hau aurkeztu genuen: “BILBO-BOLUETA: PERTSONENTZAKO HIRIGINTZA. Hiria biziberritzea eta ingurune naturala berreskuratzea”. BEST ziurtagiria lortu genuen, eta finalisten zerrendan ere sartu gintuzten (SHORT LIST).



3. Interes-taldeak

3. Interes-taldeak

Hona hemen identifikatutako interes-taldeak:

- **Akziodunak**
 - Eusko Jaurlaritza
 - Finantza-erakundeak

- **Bezeroak**
 - Salmentarako eta alokairurako etxebizitzaren erosleak

- **Sozietatea bera eta honako hauexek ere bai**
 - Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
 - Etxebizitza Sailburuordetzara atxikitako sozietateak: Alokabide eta Orubide
 - Orubide partaidetzapeko sozietatea
 - Enpresa hornitzaile eta laguntzaileak
 - Sozietatearen partaidetza duten elkarteak

- **Visesako pertsonak**

3. Interes-taldeak

Gure konpromiso soziala

Visesak xedean bertan adierazten du konpromiso soziala duela, eta, konpromiso sozial hori enpresen erantzukizun sozialaren (EES) ikuspegitik gauzatzeko, zenbait ekimen jorratzen ditu, kudeaketa gardenaren helburuan aurrera egiten jarraitzeko.

Jasangarritasunari buruzko txostena

Jasangarritasunari buruzko Txostena agiri publikoa da, Visesak borondatez eskaintzen du eta, bertan, erakundearen zein bere jardueren berri ematen da gizarte, ingurumen eta ekonomia arloko ikuspegitik. Urtero argitaratzen den balantze finantzarioaren agiri osagarria da, eta proiektuen, mozkinen eta ekintza sozialen berri ematen die akziodunei, bezeroei, pertsoneri, aliatuei eta gizarte orokorrari.

Txostena, berez, erantzukizun sozialari buruzko komunikazioaren oinarria da, eta ezaugarri bereizgarri daukan gardentasunaren printzipioaren adibidea ere bada. Global Reporting Initiativek (GRI) sustatutako eredua nazioartean aitortpen handiena daukan estandarra da, eta Visesakren jasangarritasunari buruzko txostena egiteko hautatutakoa izan da.

Jasangarritasunari buruzko Txostenean, 2011ko, 2012ko eta 2013ko datuak agertzen dira, eta 2014an osatu da. Visesak behar besteko konpromisoa hartu du, datuak eguneratzeko eta eguneraketa hori bi urtean behin argitaratzeko.

Jasangarritasunari buruzko Txostena argitaratu da, eta www.visesa.eus webgunean dago ikusgai.

3. Interes-taldeak

Gure konpromiso soziala

Arriskuen kudeaketa eta gobernu arduratsua

2009. urteaz geroztik, Visesak "Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioetako gobernu arduraturako gida" erabiltzen du erreferentzia moduan. Eusko Jaurlaritzakoa da, eta Kontrol Ekonomikorako Bulegoak (KEB) zuzentzen du. Bertan, zenbait gai aztertzen dira, erakundearen ekonomia, ingurumen eta gizarte arloko kudeaketa eraginkortasunez garatzeko eta Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) zehaztutako gardentasunaren eta gobernu egokiaren printzipioak betetzeko.

Aldi berean, Visesak honako hauxe ere jarri du abian: "Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioetako barne-kontrolerako funtzioa ezartzeko eta garatzeko eskuliburua".

Hiru hilean behin, Visesak KEBri ematen dio bi gida horien ezarpen-mailaren berri. Horrez gain, 2013. urtearen amaieran, Visesaren kudeaketa ikuskatu zuten bi arlo horietan. 2014ko apirilean, posizioari buruzko txostena jaso dugu, eta gobernu arduratsuaren gidaren betearazpena %62,5ekoa izan da (gainerako erakundeen betearazpenaren batezbestekoa %58,66koa da); eta, gainerako erakundeen %60,48ren aldean, gure betearazpena %62,25ekoa izan da barne-kontrolaren eskuliburuaren betearazpenari dagokionez.

Horren ondorioz, hobekuntza-arloak antzeman eta behar besteko Ekintza Plana zehaztu dugu, gobernu arduratsuaren gidaren eta barne-kontrolaren eskuliburuaren betearazpenean aurrera egiten jarraitzeko. Visesak, beraz, bere konpromisoa berretsi du, horrelako gaietan aurrera egiten jarraitzeko.

3. Interes-taldeak

Gure konpromiso soziala

Kapitalen zuriketaren prebentzioa

Visesak zenbait politika eta prozedura diseinatu eta abian jarri ditu, Kapitalen Zuriketaren Prebentzioari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legean xedatutakoa betetzeko eta terrorismoaren edo delituzko beste jarduera batzuen finantziazioan erabiltzea eragozteko.

Kapitalen zuriketaren arloan hobetzeko eta betetzeko konpromisoa dugunez, horretarako baliabideak erabiltzen ditugu prestakuntzaren, informazioaren eta sensibilizazioaren bitartez. Horrela, bada, bermatu egiten dugu Visesak barne-arlo eta pertsona guztiek kapitalen zuriketaren prebentzioari buruzko legeria bete-betean betetzen dutela.



4. 2014ko jarduera

4. 2014ko jarduera

Memoria honen bidez, Visesak bere interes-talde guztiei eman nahi die iaz lortutako emaitza adierazgarrienen eta mugarri nabarienen berri.

Balantzearen helburu den 2014. urtean, jarduera bizi-bizia izan da, zailtasun sozio-ekonomikoak handiak izan badira ere.

2014an proiektua edo eraikuntza garatzeko lizitatutako etxebizitzak dira garatutako jardueraren adierazgarri, baita gaur egun proiektupean edo obra-betearazpenpean dauden 3.200etik gora etxebizitzak ere. 2014. urtean, horretarako inbertsioa 47 milioi eurotik gorakoa izan denez, Visesak nabarmen suspertu du ekonomiako sektore hori.


Azpimarratu egin behar da 2014an etxebizitzak esleitzeko modalitate berriak sendotu direla; esate baterako, erosteko aukera eskaintzen duen alokairua, geroratutako ordainketa eskaintzen duen salerosketa edo esleipen zuzena. Guzti-guztiek etxebizitza eskuratzeko aukera eskaini nahi diete herritarrei.

Modu berean, bete-bete lan egiten jarraitu dugu hiria biziberritzeko proiektu estrategikoetan (Zorrotzaurre, Bolueta eta Galindo ibarra), EuskoRegiteren ezarpenean eta berrikuntzarako nahiz jasangarritasunerako zenbait proiektutan.

4. 2014ko jarduera

4.1. Giza taldea

4.1.1. Organigrama funtzionala




4. 2014ko jarduera

4.1. Giza taldea

4.1.2. Pertsonen arloko emaitzak

Langileen banaketa, erantzukizunaren arabera (2014ko batezbestekoa)




4. 2014ko jarduera

4.1. Giza taldea

4.1.2. Pertsonen arloko emaitzak

Langileen banaketa, antzintasun-urteen arabera (abenduaren 31n)




4. 2014ko jarduera

4.1. Giza taldea

4.1.2. Pertsonen arloko emaitzak

Langileen banaketa, adinaren arabera (abenduaren 31n)



4. 2014ko jarduera

4.1. Giza taldea

4.1.3. Berdintasuna eta laneko segurtasunaren zein osasunaren arloko prebentzioa

Visesaren helburu estrategikoetakoaren arabera, aurrera egiten jarraitu behar du, bere jardueran generoaren ikuspegia ezartzeko. Horretarako, funtsezkoa da **Berdintasun Plana** egitea. 2014. urtean, Visesak erakundearen berdintasuna sustatzeko zenbait neurri ezarri ditu bere eragiketetan, eta lehenengo Berdintasun Plana onartu du.

Planaren helburu nagusia balioak aldatzea da, Visesako pertsona guztiek euren eguneroko jardueran ezarri behar dutelako generoaren ikuspegia eraginkortasunaren eta helburuen lorpena alde batera utzi gabe. Gainera, aniztasunaren errespetua eta emakume zein gizonen berdintasuna bermatzen duen emaitza ere erdietsi beharko dute.

Horretarako, 2014. urtean, Visesako talde guztientzako ikastaroen bidezko prestakuntza-plana ezarri da, sentsibilizaziorako zenbait ekintza garatzeko eta lengoia inklusiboaren erabilera hobetzeko.

Visesako pertsonen laneko osasunarekin eta segurtasunarekin hartutako konpromisoan, 2014. urtean, lehenengo **Azterketa Psikosoziala** egin da, antzemandako arriskuengatik sortutako ondorioak antzemateko eta prebenitzeko. 2012an eratutako Segurtasun eta Osasun Batzordeak gai horrekin lotutako ekintzen zaintza, garapena eta lorpena bultzatzen ditu.

4. 2014ko jarduera

4.1. Giza taldea

4.1.4. Komunikazioa, laneko harremanak eta jakintzaren kudeaketa

2014. urtean, Visesako partaidetza bera sendotzea izan da helburua. Horretarako, behar den moduko eremuak sortu dira, pertsonen plan estrategikoaren prestaketan eta balioen zehaztapenean parte hartu dezaten. Era berean, barne-komunikaziorako politikan informazioa zabaltzeko zehaztutako kanalak erabiltzen jarraitu dugu; esate baterako, Intranet korporatiboa, Berezi Bilera, sailen aldian aldiko bilerak informazio estrategikoa trukatzeko eta zuzendaritza nagusiarekin egindako aldian aldiko topaketak plan estrategikoaren jarraipenaren berri emateko.

Visesako lehen hitzarmena 2013ko martxoan argitaratu zen. 2014rako, hitzarmena luzatzeko erabakia hartu zen, eta 2015. urterako luzatu da berriro.

Prestakuntzari dagokionez, Visesaren gaur egungo eta etorkizuneko premiei erantzuteko moduko prestakuntza-plana egiten eta ezartzen jarraitzen dugu. Horretarako, ahalegin handia egin dugu trebetasun tekniko bereziak nahiz kudeaketarako trebetasunak garatzeko, eta, bertan, Visesako **pertsonen %100ek parte hartu dute**.

Euskararen erabilera babestu eta sustatzeko asmoz, 2014. urtean Visesak 2013-2014ko Euskara Planaren esparruan garatu ditu **Visesako hizkuntza-irizpideak**, eta erakundeko pertsonen eguneroko jardueran euskararen erabilera ezartzeko funtsezko oinarria izango dira. Era berean, aurreko urteetan bezala, prestakuntzaren arloko ekintzak garatu dira, eta, erakundeko pertsonen %28k baino gehiagok parte hartu dute bertan.

2014. urtean, **gazteak laneratzeko prozesua sustatzen jarraitu dugu**. Oraingoan, pertsona batek 9 hilabetez parte hartu du Novia Salcedo Fundazioaren eskutik beka garatzeko informazio-sistemen arloko proiektuaren garapenean.

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

4.2.1. Hiria biziberritzeko proiektu estrategikoak

Bolueta

Boluetako Lur Birzatiketarako Proiektua onartu da behin betiko (Boluetako 27. egikaritze-unitatea), eta Viserari zazpi lur-zati egokitu zaizkio. Horrez gain, urbanizaziorako proiektua ere onartu da behin betiko. Hortik aurrera, lehendik zeuden eraikinak eraisten jarraitu dugu, eremuko urbanizazio-lanak lizitatu eta abian jarri ditugu eta 1. faseko eraikuntza-obrak lizitatu ditugu, hau da, 108 BOE, 63 ES eta 190 PTE, guztira.

Zorrotzaurre

Zorrotzaurreko eremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia (HAPB) 2012ko azaroaren 29ko osoko bilkuran onartu zen behin betiko.

HJPko agiria behin betiko onartu eta 2013ko urriaren 8ko 193. BAO n argitaratu zen.

Gainera, 2012ko azaroaren 26an, Saitec, S.A. enpresari esleitu zitzaion Zorrotzaurreko eremu mistoko 1. jarduketa integratuko 1. egikaritze-unitatearen Urbanizaziorako Proiektuaren idazketa. Halaber, 2013ko urtarrilaren 11n, laguntza teknikorako lehiaketa esleitu zen, Zorrotzaurreko eremu mistoko gune zabalaren Urbanizaziorako Aurreproiektua eta Zorrotzaurreko eremu mistoko 1. jarduketa integratuko 1. egikaritze-unitateko gune zabalaren Urbanizaziorako Proiektua diseinatzeko eta idazteko.

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

4.2.1. Hiria birsortzeko proiektu estrategikoak

1EU Egikaritze Unitateko Itun Hitzarmena 2013ko urrian onartu zen behin betiko. Lur-birzaketarako proiektua, ordea, 2014ko abenduan onartu da hasiera batean, eta, aurreikuspenen arabera, otsailaren amaieran argitaratuko da BAOn.

2014an, Deustuko kanala irekitzeko eta Frank Gehry zubia eraikitzeko lanak ere jarri dira abian.

Galindo ibarra

2014ko azaroaren 12an, eremuko 1. faseko urbanizazio-obrak amaitu dira.

Aldi berean, 2014ko urriaren 21ean, 58 ES, 52 BOE eta alokairupeko 53 BOE eraikitzeko obrak esleitu zaizkio Valeriano Urrutikoetxea, SAU enpresari, eta, aurreikuspenen arabera, 2015eko urtarrilean hasiko dira.

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

4.2.2. 2014ko sustapen-jarduera

Proiektuaren hasieradun sustapenak:

- G-63, 70 BOE alokairupean, Morlans-Donostia
- B-88, 53 BOE, Arangoiti-Bilbo
- B-90, 14 EA, Basurto-Bilbo
- B-91, 80 BOE, Basurto-Bilbo

Behin-behineko kalifikaziodun sustapenak:

- G-61, 32 BOE + 33 BOEa, Hondarribia
- G-63, 70 BOEa, Morlans-Donostia
- B-87, 96 BOE, Santurtzi
- B-88, 53 BOE, Arangoiti-Bilbo
- B-70, 130 BOE, Basauri-Sarratu
- B-82, 85 BOE, Barakaldo

Obran dauden sustapen lizitatuak:

- B-43, 63 ES eta 108 BOE, Bolueta, Bilbo
- B-46, 190 PTE, Bolueta, Bilbo

Esleitutako obradun sustapenak:

- B-77, 108 BOE, Leioa-Leioandi
- B-78, 96 BOE, Leioa-Leioandi
- G-40, 62 BOE, Eibar
- G-51, 48 BOE + 16 BOEa, Irun-Oiñaurre
- B-45, 58 ES + 53 BOEa + 52 BOE, Sestao, Galindo ibarra

BOE: babes ofizialeko etxebizitza

BOEa: babes ofizialeko etxebizitza alokairupean

ES: etxebizitza soziala

PTE: prezio tasatuko etxebizitza

EA: etxebizitza askea

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

2014. urtean, Visesak sustapenak garatzen jarraitu du gure erkidegoko hiru lurralde historikoetako zenbait udalerritan. Proiektupean edo obraren betearazpenpean, 2014an 3.253 etxebizitzaren sustapenean lan egin dugu guztira.

ALAVA

- A-32, 171 ES, Salburua, Vitoria-Gasteiz

BIZKAIA

- B-67, 101 ES, Leioa-Leioandi
- B-76, 100 BOE, Leioa-Leioandi
- B-77, 108 BOE, Leioa-Leioandi
- B-78, 96 BOE, Leioa-Leioandi
- B-69, 60 BOE eta 90 ES, Basauri
- B-43, 108 BOE + 63 ES, Bolueta-Bilbo
- B-46, 190 PTE, Bolueta-Bilbo
- B-50, 126 BOE, Ametzola-Bilbo
- B-63, 144 BOE, Durango
- B-81, 92 BOE, Barakaldo-Karmen
- B-86, 72 BOE, Barakaldo-Karmen
- B-82, 85 BOE, Barakaldo-Karmen
- B-45, 105 BOE eta 58 ES, Galindo ibarra-Sestao
- B-70, 130 BOE, Basauri-Sarratu
- B-79, 53 BOE, Getxo-Sarrikobaso

- B-80, 54 BOE, Getxo-Venancios
- B-85, 40 BOE eta 40 PTE, Leioa-Txorierrri
- B-87, 96 BOE, Santurtzi
- B-90, 14 EA, Basurto-Bilbo
- B-91, 80 BOE, Basurto-Bilbo
- B-88, 53 BOE, Arangoiti-Bilbo

GIPUZKOA

- G-33, 144 BOE + 68 ES, Pasaia
- G-38, 74 BOE eta 34 ES, Hernani
- G-51, 96 BOE eta BOEa eta 32 ES, Oiñaurre-Irun
- G-40, 62 BOE, Eibar-Egazelai
- G-56, 106 BOE, Tolosa
- G-57, 36 PTE, Tolosa
- G-61, 32 BOE + 33BOEa, Hondarribia
- G-58, 53 BOE, Zumaia
- G-59, 42 BOEa, Zumaia
- G-60, 42 ES, Zumaia
- G-63, 70 BOEa, Morlans-Donostia

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

4.2.3. Kontratuen eta eskrituren sinadura

Babestutako etxebizitzak

2014an, babes ofizialeko etxebizitzak 3 sustapen eta ESko 2 sustapena eskrituratzeko hasi dira, eta lagapen-araubidea alokairurako salmentarena izango da.

Era berean, babes ofizialeko etxebizitzak 7 sustapeneko eta etxebizitza sozialen 2 sustapeneko kontratuak sinatzen hasi dira. Honako hauxe sinatu dugu ekitaldi honetan:

2014		
	Kontratuak	Eskriturak
BOE	453	271
ES	239	116
GUZTIRA	692	387

Por Territorios históricos:

	2014KO KONTRATUAK			2014KO ESKRITURAK		
	BOE	ES	GUZTIRA	BOE	ES	Guztira
ARABA	15	171	186	14	48	62
BIZKAIA	343	0	343	139	0	139
GIPUZKOA	95	68	163	118	68	186
GUZTIRA	453	239	692	271	116	387

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

Elementu askeak (lokal, garaje eta trasteleku askeak)

PARTIKULARREKIN	
Eskriturak	Salmenten zenbatekoa
69	1.367.377 €

Aurten ere, 1.750.424 euroko balioa duten 14 lokal komertzial esleitu dira, eta, lurzoruak eskuratzeko hitzarmenaren arabera, Ensanche 21i eskualdatu behar zitzaizkion.

Babestutako etxebizitzaren esleipen zuzena -zozketarik gabe-

Aurten, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren aginduen arabera, Visesak Audio, Derio, Ugao, Durango eta Eibarko (azken hori eraikitzen ari dira) sustapenetako **etxebizitza hutsak esleitu ditu** zuzenean. Hau da, zozketarik gabe eta Etxebiden inskribatuta egon gabe. Horretarako, nahikoa da babestutako etxebizitza eskuratzeko arautegian zehaztutako betekizunak betetzea.

Guztira, prozedura horretarako 82 eskabide jaso dira. Eurretatik, 46 kontratu gauzatu dira, eta 18 etxebizitza eskrituratu dira guztira.

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

Ordainketa geroratua eta jabariaren erreserba eskaintzen dituen salerosketa

2014. urtean ere, berriro ere Visesak goian adierazitako sustapenetako etxebizitza erosteko finantziatorik ez duten bezeroei eskaini die etxebizitza **“ordainketa geroratua eta jabariaren erreserba eskaintzen dituen salerosketa”** modalitatepean erosteko aukera. Honelaxe ordaindu beharra dago:

- Etxebizitzaren eta eranskinen prezioaren **%15eko gutxienekoa + kasuan kasuko BEZa**, ordainketa geroratua eta jabariaren erreserba eskaintzen dituen kontratua sinatzean.
- **Gainerako BEZa**, hau da, geroratutako prezioaren %85i dagokiona, **eskriturak sinatu eta giltzak ematean**.
- **Prezioaren %70 gehienez ere + geroratutako prezioaren zatiari dagozkion interesak** (guztira, gainerako %85i dagozkion interesak (%70+ %15)). Hilekotan, ez dute Eusko Jaurlaritzako hitzarmenpeko tasa gaindituko. Eskritura publikoaren sinaduraren hasiera.
- **Azken ordainketaren %15eko gehienezkoa** eta eroslearen jabetzaren eskurapena, gehi goian adierazitako interesak (%70eko kuotetan zenbatuko dira).

Babestutako etxebizitzak erosketa-araubidean esleitzeko zozketak

Aurreko modalitateaz gain, Vitoria-Gasteizen amaitutako 5 sustapenetako zenbait etxebizitzatan eta Iruña Okako batean, salerosketaren modalitatea ere ezarri da: **erosteko aukera eskaintzen duen alokairua** (AROC). Erosteko modalitate horri esker, badago babestutako etxebizitza 5 urtez alokatzerik eta erosteko aukera edukitzerik.

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

Merkaturatzeko modalitate horren hasieratik (2013ko irailean), 195 AROC kontratu sinatu ditugu, eta, eurretatik, **123 2014. urtean izenpetu dira**; eta gainerakoak, 2013. urtean.

Babestutako etxebizitzak erosketa-araubidean esleitzeko zozketak

2013an sustapenaren helburu diren udalerrietan errolatutako eskatzaileen artean esleipenerako zozketak egin ondoren, etxebizitza hutsak geratu direla kontuan hartuta (esleipendunik gabe), Visesak 4 sustapen erosketa-araubidepean esleitzeko zozketak egin ditu kasuan kasuko eremu funtzionaletako udalerrietan borondatez inskribatutako eskatzaileen artean (2, Bizkaian; eta 2, Gipuzkoan).

Bizkaia: Leioako bi sustapenetako BOE hutsak

Gipuzkoa: Eibarko sustapen bateko eta Irungo beste bateko BOE hutsak

2014an zozketatutako BOE hutsak guztira: 139 etxebizitza babestu

BOE-EN ZOZKETA 2014AN	
Bizkaia	80
Gipuzkoa	59
GUZTIRA	139

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

4.2.4. Berrikuntza, jasangarritasuna eta zaharberrikuntza

Visesak egunez egun lan egiten du, etxebizitzaren eraikuntzako erreferentzia izateko eta zeregin hori ingurumena eta, batez ere, herritarrak edozein ikuspuntutatik zaintzen dituen ikuspegi berritzaile bezain jasangarritik betetzeko. Hona hemen Visesak 2014an garatu dituen proiektuak.

Eraikinen eraginkortasun energetikoa eta jasangarritasuna

Neurri orokorrak:

- Gure sustapen guztietan, “Visesaren diseinurako eta eraikuntzarako irizpideak” betetzen dira zehatz-mehatz. Irizpide horien ondorioz, autoeskakizun handiak ezarri behar dira eraginkortasun energetikoaren eta jasangarritasunaren arloan.
- Kalitatearen bermea den ziurtagiri energetikoa. Visesak %30eko gutxieneko aurrezki energetikoa ziurtatzen du bere eraikin guztietan, kalitatearen berme moduan. Hori dela eta, A, B eta C mailako kalifikazio energetikoak dituzte.

Hona hemen 2014an jasotako etxebizitzek lortutako kalifikazioak:

- **A kalifikazioa:** %48
- **B kalifikazioa:** %20
- **C kalifikazioa:** %32

Lortutako aurrezki honako haxe izan da batez beste:

- CO₂ igorpenen %60ko aurrezki, arautegia betetzeko.
- Lehen mailako energiaren %58ko aurrezki, arautegia betetzeko.

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

LURRALDE HISTORIKOA	ETXEBIZITZAK GUZTIRA	SUSTAPENAREN KOKAPENA	ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA (EEZ)							
			LORTUTAKO (BENETAKO ERAIKINA)			ARAUTEGIA (ERREFERENTZIAKO ERAIKINA)			HOBEKUNTZA (AURREZKIA %)	
			Kalifikazioa	Igorpenak (kgCO ₂ /m ² urteko)	1. mailako ener. (kWh/m ² urteko)	Kalifikazioa	Igorpenak (kgCO ₂ /m ² urteko)	1. mailako ener. (kWh/m ² urteko)	CO ₂ Igorpenak	Lehen mailako energia
ARABA	171	ARKAIATE, VITORIA-GASTEIZ	A	9,0	47,8	D	30,0	134,1	%70	%64
BIZKAIA	126	AMETZOLA, BILBO	B	7,9	36,5	D	16,1	71,8	%51	%49
BIZKAIA	72	DURANGO	A	9,7	59,0	D	28,9	129,0	%67	%54
	72		A	9,7	59,4	D	28,2	125,9	%66	%53
GIPUZKOA	108	PASAIA	C	11,6	Informaziorik gabe	D	22,3	Informaziorik gabe	%48	N.A
	104		C	12,5	Informaziorik gabe	D	23,2	Informaziorik gabe	%46	N.A
GUZTIRA	653		ETXEBIZ. BATEZ BESTEKOAK	9,9	48,3		24,6	114,1	%60	%58

- **Eguzki-energia termikoko instalazioak.** Visesak eguzki-hargune termikorako (edo beste iturri berriztagarri baliokide baterako) hodi biltzaileak jartzen ditu bete sustapenetan, gutxienez ur bero sanitariorako beharrezko urteko batez besteko energia guztiaren %60 hornitzeko (arautegiaren arabera, %30ekoa da).
- Sustapen guztietako jasangarritasunaren diseinua eta ebaluazioa, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzarako **Eraikuntza Jasangarriaren Gida** kontuan hartuta.

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

- A edo hortik gorako kalifikazioko etxetresna elektrikoak dituzten etxebizitzak.
- Kontratazio publiko berdea: eraikuntzako obrak lizitzatzeko orrien ambientalizazioa.
- Obra betearaztean ingurumena segurtatzeko planaren prestaketa.

Proiektuak:

- **Jabeen erkidegoentzako zerbitzugintza energetikoa.** Visesak sustatutako hiru eraikinetan ezarriko da, eta A kalifikazio energetikoa zein eraginkortasun handiko baterako mikrosorkuntzarako sistema dituzte (beroaren eta elektrizitatearen aldi bereko sorkuntza), errendimendua hobetzeko. Horretarako, Visesak baterako sorkuntzarako ekipoen titularitateari eusten dio, galdaren areto osoa kudeatu eta artatu egiten du eta berokuntzaren zein ur beroaren hornikuntza egokia eskaintzen die auzokoei. 2014an, 445 etxebizitzatan eragina duten kontratuak kudeatu dira.
- **OSIRYS** (I+G-ko 7. Esparru Programako proiektu europarra). 2013ko ekainean hasi zen, eta 4 urteko iraupena izango du. Ekomaterialak garatzea du helburu (bioerretxinetan eta biozuntzetan oinarritutakoak). Izan ere, fatxadetan edo barruko zatiketetan material horiek eraikuntzako ohiko materialekin nahasten badira, barruko airearen kalitatea eta itxituretako "arnasgarritasuna" hobetu ahal izango dira. 18 bazkidek osatutako partzuergoak garatuko du. 2014an, Visesak premien zehaztapenean parte hartu du, proiektuko erakustaldi-fasea Donostiako Morlanseko eremuko sustapenean ezartzeko.

4. 2014ko jarduera

4.2. Jardueraren emaitzak

Hiri-garapen jasangarriak - zaharberrikuntza

PIME's - Concerto (2010-2014) (I+G-ko 7. Esparru Programako proiektu europarra). Helburua: eraginkortasun energetiko handiko eraikin jasangarriak garatzea eta energia-iturri berriztagarriak txertatzea, bizitegi-garapenerako jasangarritasun energetiko eta sozialaren arloko egikera onaren adierazgarri. Proiektuaren barruan, Vitoria-Gasteizen, Dalen (Norvegia) eta Szentendren (Hungaria) egingo dira jarduketak. Hori dela eta, I+G-ko, erakustaldiko eta zabalkundeko jardueretan ari gara elkarrekin lan egiten, ezarritako neurrien eta banako proiektuen eragina ahalik eta handiena izan dadin.

Vitoria-Gasteizko jarduketa: lehenengo urteetan, ikerlanak eta diseinuak egin dira, eta Arkaiateko 171 etxebizitza sozialeko eraikinaren eraikuntzan ezarri da (A goi-kalifikazio energetikoa dauka), ia-ia energiari kontsumitzen ez duen ereduaren adibide berregingarri moduan (2020rako zuzentarau europarretan xedatutakoarekin bat dator). Horren ostean, 2014. urtean, PIME'S proiektuak eraikin hori okupatzeko eta emaitzak aztertzeko faseari ekin dio. Era berean, Zaramagako (Gasteiz) 30 etxebizitzako eraikinaren zaharberrikuntza energetikorako obrak hasi dira, eta, aurreikuspenen arabera, 2015eko udaberrirako egongo dira amaituta.

Proiektuaren esparruan, azaroaren 13an eta 14an, Visesak eta AVSk (Etxebizitza eta Lurzoruko Sustatzaile Publikoen Elkartea) nazioarteko hitzaldi hau antolatu zuten: "Eraikuntza, zaharberrikuntza eta hiri-biziberrikuntza. Erronka energetikoak eta etxebizitza sozialen zeregina". Jardueretan, arlo horretako erreferenteak diren hizlari europarrek parte hartu zuten, eta oso jardunaldi arrakastatsuak izan ziren, 300 lagun baino gehiago bertaratu ziren-eta (info +: www.jornadasvisesa.com).

4. 2014ko jarduera

4.3. Bezeroak

4.3.1. Kokalekua

Bezeroen Arretarako Bizkaiko Bulegoa
San Bizente 8 - Etxabea
(Uribitartetik)
48001 Bilbo

Donostiako Bezeroen Atentziorako Bulegoa
Errotaburu pasealekua, 1, 7.a
20018 Donostia-San Sebastián



Bulego nagusia - Vitoria-Gasteiz, Araba
Gamarrako atea 1A, 2. solairua (El Boulevard eraikina)
01013 Vitoria-Gasteiz

Arabako Bezeroen Atentziorako Bulegoa
Gamarrako atea 1A - Etxabea (El Boulevard eraikina - Zaramaga kaletik)
01013 Vitoria-Gasteiz

4. 2014ko jarduera

4.3. Bezeroak

4.3.2. Bezeroekiko harremanak

Etxebizitza eredugarriak

2014an, etxebizitza eredugarriak irekitzen jarraitu du Visesak, etorkizuneko jabeek etxebizitzak nolakoak diren ikustea nahi du-eta. Etxebizitza eredugarriak ireki ditugu, eskaintzen dugun zerbitzua hobetzeko eta gure sustapenak bisitatzen dituztenek etxebizitzetako materialak zein akaberak ikusteko.

2 etxebizitza eredugarri ireki dira: batetik, Ametzolako sustapeneko bat ekainean; eta, bestetik, Durangoko sustapeneko beste bat, irailean. Bietan, jende ugari hurbildu da.

Webeko datuak

Visesaren **www.visesa.eus** webgunea etxebizitza babestuen etorkizuneko jabeekiko eta hornitzaileekiko komunikaziorako eta informaziorako bitartekoa da. Webguneak 89.169 bisitaldi izan ditu guztira (eguneko 244,3 bisitaldi).

Webgunerako bisitaldiak 52.701 erabiltzailek egin dituzte, eta, guztira, 539.330 orri bistaratu dituzte. Era berean, erabiltzaileen %43,2 bisitari berriak dira; eta %56,8, ohikoak.

4. 2014ko jarduera

4.3. Bezeroak

Bezeroekiko komunikazioak

■ Gardentasunaren alde - Esleipenerako zozketen emanaldia webaren bidez

Sustapenak esleitzeko orduan Visesak gardentasunaren aldeko apustua egiten duenez, etxebizitzak esleitzeko zozketak ematen ditu webgunean. Aurten, 3 sustapen zozketatu dira streamingaren eta webgunearen bidez: Eibar, Irun eta Leioa. Eibarko 27 etxebizitzek 30 eskatzaile izan dituzte; Irungo 32 etxebizitzek, 241; eta Leioako 80 etxebizitzek, 545.

■ Arabako eta Euskadiko Higiezin Azoka

2013. urtean, Visesak lehen aldiz parte hartu zuen Arabako Higiezin Azokan, eta, 2014an, Euskadiko Higiezin Azokan ere egon da. Gainera, aurreko deialdia bezain arrakastatsua izan da. Arabako Higiezin Azokan, etxebizitza eskuratzeko formulak erakargarri apartak izan dira erakustokiko bisitarientzat: erosteko aukera eskaintzen duen alokairua, erosketa zuzena eta ordainketa geroratua eskaintzen duen salmenta. Bestetik, Euskadiko Higiezin Azokan, Visesak itsasadarrean eta, batez ere, Sestaoko Galindo ibarrean, Zorrotzaurren eta Boluetan egingo duen garapena nabarmendu zen erakustokian. Bi erakustokietan, lokal komertzialen eskaintza ere egon zen ikusgai.

■ Tolosako inskripzioa

Aurten, Amaroiz-Tolosako etxebizitzek lehen urratsa eman dute, Visesaren webgunearen bidez inskribatzeko aukera eman zaielako ustezko interesdunei. Guztira, 37 lagun inskribatu dira Iruña hiribidetik hurbil antzinako papertegiko lursailetan kokatuta dagoen proiektuko eskatzaile moduan. Bertan, 6 solairuko 2 eraikin egingo dira, eta urbanizazio zein lorategi handiak izango dituzte inguruan. Epea amaitutakoan, Visesak sustapenari buruzko informazioa bidali die, eta, aurreikuspenen arabera, 2015ean zozketatuko da.

4. 2014ko jarduera

4.3. Bezeroak

Dei-gunea

2014. urtean, 2.777 dei jaso dira, hau da, 2013. urtean baino %49 gutxiago. Beraz, beheranzko joerak bere horretan dirau, aurreko urteen aldean.

2014an emandako zerbitzuaren maila %92koa izan da. Beraz, %90 gainditu denez, saldu osteko atentziorako zerbitzugintzako emaitza ona izan dela esan beharra dago.

Halaber, guztira 1.600 mezu elektronikoko jaso dira sap@visesa.com helbidean, hau da, %30,4 gutxiago aurreko urtearen aldean.

Esleipenaren jakinarazpenak

BULEGOAK		
SALMENTAREN esleipenaren jakinarazpenak + AROC	SALMENTEN ukoa + AROC	Itundutako hitzorduak
2.154	2.064	1.817

2014an, 2 jabe-erkidego eratu dira.

4. 2014ko jarduera

4.3. Bezeroak

Bezeroen gogobetetasuna

2014. urtean, bezeroen gogobetetasunari buruzko azterketan, erosteko aukera eskaintzen duen alokairuko bezeroen gogobetetasuna zein den jakitea izan da helburu nagusia. Izan ere, bezeroek gehien eskatu dituzten modalitateetako izan da etxebizitza eskuratzeko orduan. Hona hemen inkestatutako sustapenak: A-18 Salburua, 401 etxebizitza; A-21 Zabalzana, 288 etxebizitza; A-25 Iruña Oka, 84 etxebizitza; A-27 Salburua, 242 etxebizitza; A-29 Zabalzana, 336 etxebizitza; eta A-34 Zabalzana, 84 etxebizitza.

Gogobetetasun-indize orokorrak (%71,75) bere horretan dirau aurreko urtearen aldean. Beraz, 5 puntu baino gehiago hobetu da aurreko urtearen aldean. Zenbait ezaugarri buruzko iritziari dagokionez, guzti-guztiak hobera egiten dute balioespenean, eta, euren artean, etxebizitzaren balioespenearen hobekuntza nabarmentzen da aurreko urtearen aldean.

Euren gogobetetasunari begira, bezeroek zeresan handiagoa ematen diete etxebizitzaren kalitateari zein banaketari (%24,6), kokapenari nahiz neurriari (%22) eta prezioari (%19,6). Beraz, esleitu osteko zerbitzua (%17,4) eta esleitu arteko zerbitzua (%16,3) dira erabakian zeresan txikiena dutenak.


INKESTATUTAKO FAKTOREAK	2014. URTEA
Etxebizitza	24,6
Kokapena eta neurriak	22,0
Prezioa	19,6
Esleitu osteko zerbitzua	17,4
Esleitu arteko zerbitzua	16,3

4. 2014ko jarduera

4.3. Bezeroak

Hona hemen Visesako bezeroek azken urteotan izandako gogobetetasun orokor eta globalaren indizeak:

Bezeroen gogobetetasun globalaren indizea (inkestan erantzundako ezaugarrien arabera haztatuta) - E 0:10	2010	2011	2012	2013	2014
	6,12	6,65	6,52	6,51	6,96



4. 2014ko jarduera

4.3. Bezeroak

Lokalak eta garajeak eskuratzeko formula berriak

2014. urtean, etxebizitzaren eraikuntzan ez ezik, lokalak eta garajeak erosteko formulatan ere gertatu dira berrikuntzak. Erosketaren modalitateaz gain, alokairua eta erosteko aukera eskaintzen duen alokairua ere badaude orain. Azken bi aukera horietan, negozioak abian jartzeko bi neurri ezarriko dira: 6 edo 9 hileko ezaldia errentaren ordainketan, eraldatzeko obrak egiteagatik, edo %25eko deskontua 6 hilabetez, sortutako lanpostu bakoitzeko (autoenplegua barne) eta %50eko gehienezko hobaria kontuan hartuta. Merkaturatzeko kanpaina 2015eko martxoan hasiko da.

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

4.4.1. Hasitako eta amaitutako etxebizitzak

EAEEn hasitako babes publikoko etxebizitzaren kopurua (BOE) 1.441ekoa izan da 2014an, eta Visesak gure erkidegoan hasitako etxebizitza guztien %35 egin ditu ia-ia. 2014an Visesak hasitako babes publikoko etxebizitzak babes ofizialekoak izan dira (BOE).

EAEN HASITAKO ETXEBIZITZAK	
BOE	
1.441	

VISESAN HASITAKO ETXEBIZITZAK	
BOE	
499	

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia
BOE: Babes Ofizialeko Etxebizitza

EAEEn amaitutako babes publikoko etxebizitzaren kopurua (BOE + ES) 2.200ekoa izan da 2014an, eta Visesak gure erkidegoan amaitutako etxebizitza guztien %43 baino gehiago egin ditu. 2014an Visesak amaitutako babes publikoko etxebizitzak babes ofizialekoak (BOE) eta etxebizitza sozialak (ES) izan dira.

EAEN AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK	
BOE	ES
1.921	279


VISESAN AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK	
BOE	ES
728	239

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia
BOE: babes ofizialeko etxebizitza
ES: etxebizitza soziala

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

Visesak hasitako eta amaitutako etxebizitzaren kuota, EAEn hasitako eta amaitutako etxebizitza guztiak kontuan hartuta



4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

4.4.2. Tokiko erkidegoko inbertsioak

Visesa eraikuntzaren sektoreko jarduera ekonomikoko eragile nabaria da, EAEko eragile publiko zein pribatuen mobilizazio ekonomikoa sustatzen du-eta, 2014an gastuaren kontzeptuagatik egindako ordainketen hurrengo taulan ikusten den bezala.

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA (MILAKA EURO)
Obrako ziurtagiriak	34.517
Interesak eta gastu finantzarioak	3.691
Lurzoruak	2.872
Gremioen konponketak	1.319
Sukaldeak	1.144
Teknikoen ordainsariak	889
Asistentzia teknikoak (entseguak, kontrol teknikoa eta saldu osteko zerbitzua)	720
Udal-zergak	690
Aseguruak	400
Alokairuak	317
Notarioak eta erregistroak	270
Sustapenetako zaintza	189
Kontsultoretzak eta auditoriak	141
GUZTIRA	47.160

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

4.4.3. Aliantzak, hornitzaileak eta laguntzaileak

Aliatuen, hornitzaileen eta laguntzaileen zerrenda

Visesak 2014an gurekin lan egin duten hornitzaileei, aliatuei eta laguntzaileei eman nahi dizkie eskerrak egin duten lanagatik.

Proiektuaren idazleak

- ÁBALOS ARQUITECTOS, S.L.P.
- ALBERTO SANTANDER ORCASITAS
- AN+EL ARQUITECTOS ASOCIADOS, S.C.P
- BIDEIN
- D.G. ARQUITECTURA HABITABLE S.C. P.
- EUSKAL TYM
- GERMAN VELAZQUEZ ARTEAGA
- HIRILAN ARKITEKTURA HIRIGINTZA, SLP.
- IDOM INGENIERÍA Y CONSULTORÍA
- KATSURA
- LKS ARQUITECTURA
- SATIE ARQUITECTOS S.L.P
- SOLA, TORRES VIDAURRAZAGA ARQUITECTOS S.L.P
- UTE ABAR ACHE

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

Enpresa eraikitaileak

- BYCAM
- CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.
- CONSTRUCCIONES SUKIA, S.A.
- EXBASA OBRAS Y SERVICIOS S.A.
- EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ
- FERROVIAL AGROMAN
- JAUREGUIZAR PROMOCIÓN Y GESTIÓN INMOBILIARIA, S.L.
- LURGOIEN EMPRESA CONSTRUCTORA
- CONSTRUCCIONES MOYUA SL
- CONSTRUCCIONES MURIAS
- UTE ALTUNA URIA / SACYR
- UTE EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ / URBELAN
- UTE GAIMAZ / MARTIN
- UTE VEGA GALINDO
- UTE EXISA-LURGOIEN

Kontrol teknikorako organismoa

- ATISAE
- BUREAU VERITAS ESPAÑOL, S.A.
- C.P.V. CONTROL, PREVENCION, VERIFICACION
- INTEINCO
- INTEMAC
- QUALIBERICA
- S.G.S. TECNOS
- OCA ICP CONSTRUCCIÓN
- EUROCONSULT

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaileak

- APPLUS NORCONTROL, S.L.L.U.
- BAT EGIN
- BUREAU VERITAS, S.A.
- CPV-CONTROL TECNICO Y PREVENCIÓN DE RIESGOS, S.A.
- DARZAL CONSULTORIA Y PREVENCIÓN, S.L.
- EUROCONSULT
- EUROCONTROL, S.A.
- QUALIBERICA SEGURIDAD, S.L.
- SERVASCO
- SPRIL NORTE, S.L.
- SYMAT
- TESYSAL, S.L.P.

Saiakuntzetarako laborategiak

- ACC
- EPTISA CINSA
- EUROESTUDIOS
- EUSKONTROL
- GIKESA
- LABORATORIO GOBIERNO VASCO
- LABORATORIO UNIVERSIDAD DE VALLADOLID
- LACCSA
- SAIATEK
- SERINKO
- TECNALIA

I+G+b-ko proiektuetako laguntzaileak

- ACCIONA INFRAESTRUCTURAS
- AIMPLAS
- AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ
- CENTRO TECNOLÓGICO EMI (HUNGRÍA)
- ENAR
- EVE
- GOBIERNO DE ROGALAND (NORUEGA)
- IHOBE
- LABORATORIO GOBIERNO VASCO
- TECNALIA
- UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

Saldu osteko zerbitzua

- CONSTRUCCIONES LAUKI, S.A
- CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK, S.A.
- CONSTRUCCIONES URRUTIA, S.A.
- CONSTRUCCIONES Y OBRAS NERVIÓN, S.L.
- CONSTRUCCIONES Y REPARACIONES MONTEGUI, S.L.
- ESTUDIO DE ARQUITECTURA XABIER SANCHEZ
- GEDI GRUPO DE PROMOCIÓN E INFRAESTRUCTURAS, S.A.
- GIROA, S.A.
- XUPERA

Kideak

- ACLIMA
- APD
- AVS- CECODHAS
- ERAIKUNE
- E2BA
- LEHDCO
- EUSKALIT
- Q-EPEA

Higiezinaren jabetzako agenteak (HJA)

- BIDEBI BASAURI
- FINCAS LANDA
- KASETAS GESTIÓN INMOBILIARIA
- INMOBILIARIA BERMEO BAI
- INMOBILIARIA GIETALIA
- INMOBILIARIA MACIAS

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea


Beste laguntzaile batzuk

- ACTUALIZA INTERNET THINKING
- ALIMCO CERÁMICAS
- AMAIBA
- AON GIL Y CARVAJAL, S.A.U.
- ATTEST
- AUZO LAGUN
- BK CONSULTING
- COLEGIO ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO
- DELOITTE ADVISORY
- ECNA INFORMATICA
- EL CORTE INGLES S.A.
- EUSKALTEL
- EUSKO IRRATIA S.A.
- EUSKO RENTING
- FUNDACION NOVIA SALCEDO (PAZ)
- HORI HORI
- IBAI SISTEMAS
- IBERDROLA
- ILUSTRE COLEGIO NOTARIAL DEL PAIS VASCO
- INSTITUTO LABAYRU IKASTEGIA
- IRON MOUNTAIN
- IVAP
- KRATA, S.A.
- LIMPIEZAS GUTIÉRREZ
- LABAYRU
- ODEI, S.A.
- QUORE
- MBN COMUNICACIÓN
- NACEX
- NATURGAS
- S2G
- SERIKAT
- SERVATAS
- SIKONTROL SERVICIOS
- TELBASK
- TELEFÓNICA MOVILES
- UTE AON -EGIASA
- UTE MAPFRE Y MAPFRE EMPRESAS
- VIAJES EROSKI, S.A.
- WOKO CREATIVOS
- XEY CORPORACIÓN EMPRESARIAL
- XP
- XUPERA
- ZIHURKO
- ZORROZAURRE JUNTA DE CONCERTACIÓN

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

Gure balio-katea



4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

Orubide, Visesa eta Alokabide Eusko Jaurlaritzako etxebizitza-politika garatzeko funtsezko tresnak dira, eta sinergia interesgarriak sortzen dituen balio-katea osatzen dute: Orubidek etxebizitza babestuak eta askeak zentzuzko prezioan eraikitzeke bizitegi-lurzoru mistoa erosi, kudeatu eta urbanizatu egiten du. Visesak euskal herritarrentzako kalitateko etxebizitzak sustatzen ditu; eta Alokabidek Euskadiko Autonomia Erkidegoko babes ofizialeko etxebizitza gehienek alokairua kudeatzen du, baita etxebizitza aske hutsak alokairu sozialera eta eroslehentasunaren arlora mobilizatzeko programa ere.

Laneko arriskuen prebentzioa

Visesan, bete-betean lan egiten jarraitzen dugu, geure sustapenetako segurtasun-baldintzen hobekuntza bultzatzeko. Hori dela eta, gure laneko ezbeharren kopuruak behera egin du, EAEko Eraikuntzaren Sektore Eragin Indizeen aldean.

2014. urtean, ezbeharren kopuruaren indizeak behera egin du berriro, eta EAEko zein Visesako indizeen arteko lotunea %48,43koa da.

2007. urteaz geroztik, ez da istripu hilgarririk gertatu, eta, aurton, istripu larri bat eta 10 istripu arin egon dira.

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea


Visesako eraikuntza-obretako eraginaren indizeetako emaitzak Lankidetzaz Hitzarmenaren esparruan

Urtea	EAEko eraginaren indizea (1000 biztanleko)	Visesako obren eraginaren indizea (1000 biztanleko)	Eraginaren indizeen arteko lotunea (%)
2006	141,00	55,01	39,01
2007	126,30	43,90	34,76
2008	126,70	42,00	33,15
2009	108,37	35,50	32,76
2010	107,97	27,03	25,03
2011	90,70	52,98	58,41
2012	76,53	41,76	54,57
2013	73,42	35,76	48,71
2014	76,21	36,91	48,43

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

Eraginaren indize metatuen erkaketa



4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

Kalitatearen aste europarra

Kalitatearen Aste Europarra urtero Europar Batasun osoan egiten den ekimena da, eta kalitatea sustatzeko eta zabaltzeko elkargunea izan nahi du. Ekimenaren barruan, era guztietako ekitaldi praktikoak egiten direnez (hitzaldiak, mahai-inguruak edo world kafeak), jendeak bete-betean parte hartu dezake bertan, hainbat erakunderen kudeaketa-jarduketa onenen berri eman bitartean.

Zenbait talde profesional honako gai hauen inguruan sentsibilizatzeko edukiak eta hitzaldiak aurkezten dira arreta erakartzeko: kudeaketa aurreratua, bikaintasuna, berrikuntza, konpromiso soziala, jasangarritasuna eta lehiakortasuna.

Visesak Kalitatearen Aste Europarrean parte hartzen du 2004. urteaz geroztik, eta esperientziak nahiz hausnarketak partekatzen ditu beste erakunde batzuekin, ikaskuntzako eta agerpen publikoko ingurunean. 2014an, Euskadin 3.400 profesionalak parte hartu dute Kalitatearen eta Bikaintasunaren XX. Aste Europarrean.

4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

Visesak 2014an antolatutako jardunaldia azaroaren 14an egin zen, **“Energiari begira eraginkorrak diren bizitegi-garapenak”** izenburupean. Marcos Muro jauna, Visesakozuzendari nagusia, izan zen moderatzailea, eta honako hauexek parte hartu zuten bertan: Iver Jan Leren jauna, Rogalandeko Gobernuko (Norvegia) PIME’s-eko koordinatzailea; Eugenio Perea jauna, Tecnaliako proiektu-arduraduna; Alberto Ortiz de Elgea jauna, Visesakozuzendari Berrikuntzako arduraduna; Igor Etxabe jauna, Alokabideko Atentzio eta Kanpoko Komunikazioko zuzendaria; eta Ramón Ruiz-Cuevas jauna, arkitektoa.

Bertaratutakoen %90ek baino gehiagok 7tik gorako puntuazioa eman zioten jardunaldiari, 0-10eko eskalan.

Jardunaldiak 2014

ERAIKITZE, BIRGAITZE ETA BERRONERATZE HIRITARRA
Errenka energetikoak eta etxebizitza sozialaren eginkizuna



Jornadas 2014

EDIFICACIÓN, REHABILITACIÓN Y REGENERACIÓN URBANA
Los retos energéticos y el papel de la vivienda social



4. 2014ko jarduera

4.4. Sozietatea

Proiektu solidarioak

Visesan, garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzen jarraitzen dugu, eta erakundeko pertsonen partaidetza ere sustatzen da eraikuntzaren arloarekin nolabaiteko lotunea duten proiektu solidarioetan.

2014. urtean, Maisu Jainkotiarraren Erlijioso Misiolariekin lan egin dugu Kongoko Errepublika Demokratikoko **Kashusako Ama Eskola eraikitzeko**, baina, batez ere, hirugarren ama-eskola finantzatzeko.

Aurreko faseetan lortutako emaitzak kontuan hartuta, erkidegoko pertsonak eurek parte hartu dute eraikuntzan. Hori dela eta, proiektuak eragin handia izan du zentrora doazen familien zein umeen garapenean, baita eskola eraikitzeko proiektuan bete-betean parte hartu duten askoren garapen profesional eta pertsonalean ere.





PERTSONA HELBURU
COMPROMISO CON LAS PERSONAS

www.visesa.com